


F. APALATEGUI, S. J.

EUSKAL MUTILLAK

ARMETAN

I



AUSPOA LIBURUTEGIA

JB-876

9130

EUSKAL MUTILLAK ARMETAN

I

AUSPOA LIBURUTEGIA

- 3 -

Colección Auspoa - Plaza Santa María, 2 - Tolosa

Ordaindu bearrak:

Urte betekoa: 180 peseta.

Atzerrian: 275 peseta.

Ongilleak: 350 »

Ale bakarra: 25 »

F. APALATEGUI S. J.

**EUSKAL MUTILLAK
ARMETAN**

I

AUSPOA LIBURUTEGIA

DEPÓSITO LEGAL S. S. 457—1961

ARKIBIDEA

AITA FRANZISKO APALATEGUI, S. J. ...	11
ITZ-AURREA	13
ARTEAGA'TAR JOSE ANTONIO	15
Aztifñenea	15
Ni irten bañon lenagokoa	16
Amadeo errege etorri zaneakoak	18
Nola joan nintzan	19
Desembarco	19
Gipuzkoako lenengo batalloya	20
Tolosako setioan	22
Partida berria	23
Belabietakoan?	24
Bi illabete gora ta bera... ..	26
Epaillean	26
Bizkaira	27
Illabete ta erdi gora ta bera	27
Somorrostrora	28
Epaillaren 25'an	29
26 ta 27	31
Jorraillan	32
Mayatzean	35
Estella aurrean	36
Gipuzkoara... ..	37
San Martiñetan (1874)	38
Urnietakoa (1874)	39
1875	40
Buruntzakoan	40
Orio aurrekoak	41

Expedizioa	44
Viana	45
San Inazio eguna	46
Urkabe	48
Mendizorrotz'koa	49
Montebideo	50
Mikeleteak	50
Menta zikin	51
D. PEDRO BELDERRAIN	55
Santa Kruz gau batean	57
Setiyoa	58
San Martiñetan (Nv. 1874)	59
Karlistak Oyartzunen	63
Txokoa	63
ALZA	65
1 - Martillun - 1933	65
Belabitan	66
Estellara	66
Naparroan	67
Txoritokietan	67
2 - Laureano - 1933	68
3 - Apalategui - Ataundarra	69
4 - Txapiñeneko Inazio	69
FLOREAGA'KO EUSTAKIO	73
Arma gordeketan	73
Lenengo erten aldian	74
Bigarren erten aldian	76
ARANTZAZU- -ARAOZ	81
IRU AZPEITIAK	83
Jose Mari Amube, arotza	83
Eraul'en	83
Azpeiti aurrean	85
Zulogillea	86
Orio aurrean	88
7'garrenean	88
AZKOITIAK BAT	91
I	91
II	91

III	92
IV	93
V	96
SOR SOTERA	97
Ixtilluak	97
AZKOITIAK BI	99
Bixente'k	99
Eugenio Morde'koak...	100
Somorrostron	101
Märtxoaren 25'an...	101
H. TOMAS LIZARRALDE	103
Tolosa aurrean	105
Erniokoa	106
Ochavo	107
Getari aurrean	107
Mayatzan, Ernaniko zalapartan	108
Berriz ere zortzigarreena	110
Irungo aurrean San Martiñetan	110
Errenteri aurrean	110
Urnietan Kontzeziyo aurrean	111
Txulo'ren partida berria	112
Nola eritu ninduten	115
Motrikon	118
Gud-ontziak aurrean	119
D. JUAN JOSE RECONDO	123
D. JOSE MARIA OLAIZOLA	129
LESAKA ZARRA	131
Ingenieroetara	131
D. JOSE IRAZU	133
Partida	133
Ingenieros (Guda-langilleak)	135
D. ^a DOLORES ITURRIBIDE E ITURBE	141
Nere osaba Pepe	142

AITA FRANZISKO APALATEGUI, S. J.

Aita Franzisko Apalategui Donostian jayo zan 1867'garrengo urrillaren 29'an.

Iya amazazpi urtekin jesuita sartu zan 1884'garrengo Agorraren 7'an.

Bere ikasle-urteak bukatuta, urte asko egin zun Valladolid'eko jesuiten ikastetxean, Historia erakusten. Bere azkeneko urteak Loyolan eta Donostin egin zitun.

Oso euskaltzalea zan. Euskerazko zeozer ere argitaratu zun, bañan bere euskeraren aldeko lanik onena oraingo au dala uste degu.

1922'garrengo urtea ezkeroztik sayatu zan lan ontan. Nola ibilli oi zan bati ta besteari galdezka, emen bertan ondoen ikusi diteke.

Gaur agertzen diranaz gañera, beste orrelako asko bildu zitun. Argitaratuko ditugu oiek ere.

Kontaeraz gañera beste paper ta berri asko bildu zun. Orain Gipuzkoa'ko Diputazioan daude bere paper danak.

Paperaz gañera karlisten gerrateko oroipen asko bildu zun. Orain oiek San Telmo'n daude.

Osasunez, askotan beintzat, makal xamar ibilli oi zan.

1948'garrengo Otsaillaren 24'ean Loyolan il zan, 81 urtekin.

ITZ-AURREA

Aita Apalategui'ren kuadernoak ez daude oso garbi idatzita. Erderaz esaten denez, *borrador* bat dira. Orregatik, asi baño len oar edo abixu batzuk egitea komeni da.

Beste ezer esaten ez bada, beintzat, kakoen artean (*paréntesis*) daudenak, edo beste letra mota ontan jarritakoak (*cursiva*) Aita Apalategui'k jarriak dira.

Beste batzuetan, berriz, kako pare bi daude ((.....)). Onek esan nai du, Aita Apalategui'k len idatzi zuna gero borrratu zuela, ta ori adierazteko jarri degu modu ortan.

Kuadernoan orrialdearen oñean zeuden oar edo abixuak, kontaeraren ariaren segira baldin baziran, kontaerari erantsi dizkiogu, kakoen artean (*paréntesis*) jarrita.

Noizean bein badaude itz batzuk gerran ibillitako agure zar aiek iñola ere esango etzi-

tuztenak. Adibidez: karlotarrak, izkillu, ... Ez ditugu inola ere ikutu nai izan.

Liburu au osatzeko kuaderno oso batez eta beste baten erdiaz baliatu gera. Erderazko beste kontatera batzuk ere badira. Utzi egin ditugu. Karlisten lenengo gerrateaz ere badago zerbait. Ori ez dago norbaiti entzun ta berea la paperera aldatuta, bestela baizik. Ori ere utzi egin degu oraingoz.

ARTEAGA'TAR JOSE ANTONIO

AZTIÑENEA (I).

(J. Antonioren jayotetxea.)

Lenengo gerratean, etxe ontan ingelesak egon oi ziran. Gure etxeak bazitun (eta baditu) beyan zutiko (pies derechos) lodiak. Ingelesak metu zituzten axkorakin ezpalak kenduaz su egiteko. Batzuetan ere igari ibayan zebiltzala, karlistak tiroka ekin ta larru gorrian etxera (Aztñenera).

Liberalak Mundaizko ermitan zuten beste goardia. Emen urbanoak egoten ziran.

(1) Ikusi: Aita Apalategi'ren paperak, Gipuzkoako Diputazioan, C - 10, 73 - 112 orrialdeetan.

(2) Aita Apalategi'k iduri edo croquis bat jar-tzen du emen Aztñenea nun zegoen adierazteko.

N. B.—Abek liberalak Ametzagaña ar-
tu ta gerozkoak izan bear zuten. (1835-
7-?).

Ni karlistetara joan bañon lenagoko
kontuak ere, esan bear diot.

NI IRTEN BAÑO LENAGOKOA.

San Antonio eguna. Cantillo (capt.)
mobilizadoen nagusi.

—Zer ziran mobilizado abek?

—Gobernuen aldeko kompañi batzuk
(3? edo) karabiñero zar: tropan ibillita-
koak, kastillanoak geyenak. Bertakoak
ere baziran. Mutil alprojenak. Mikeleteai
bezela eguneko bi pesta ta errazioa ema-
ten zieten. Alperraz bete ziran kompañi
ayek. Etziran erriko boluntarioak bezela
erria gordetzeko bakarrik. Noranai tro-
paekin ibiltzeko baizik.

Kompañi oyetako bat Eskoriatzan
egon zan. Dugiols oñatiarra nagusi.

Bestea Astigarragan, Ernani ta Oyar-
tzungo serbizioa egiñaz. Cantillo kapitan.

Beste kompañi bat Ayan.

San Antonio egunean (Garagarraren
amairuan) etorri da Cantillo Donostira ta

¡zapla! Ayuntamentuan sartu. Bere alde asko zitun. Ayuntamentu etxeak ezker eskui baditu *terraza* bi, andik tiroka. Kai aldera batez ere.

—Zeñi?

—Arbolai edo. Zalaparta egin. Udal etxeko *terraza* batek Iñigo kalea zuzen zuzen arrapatzen du; besteak Arrandegikoa ta Portu-kalera. Aruntz zijoazten balak. Kayeko portale gañetik erantzuten zieten etsai ziranak.

Erriko boluntarioak korneta joka: biltzeko. An ikusi genitun Lasala ta Matxinbarrena ta, pixtoizko fusil aundiarekin.

Santa Katalin zubi ondoan fortiña (Avenida 7 y 3) (gud-etxea) egiten ari ziran.

An formatu dira boluntarioak, bañan ez danak. Batzuk Cantilloren aldea artu zuten. Gabez asko jun zitzaiozkan.

Urrengo goizean Loyolatik eta zetozten baserritarrak Atotxan geratu ziran.

Kuarteleko tropa San Bizente atzetik erten da muralla zar gañetik Bretxara. Plaza berria inguratu dute ta antxe *entregatu* ziran Cantillorenak.

Boluntarioak eta mobilizatuak armak
plazan utzi zituzten. Gero boluntarioari
(ez danai) itzuli.

AMADEO ERREGÉ ETORRI ZANEKOAK.

*Agostuko illaren
laugarren eguna,
bizi gean arten Donostian
aztuko etzaiguna.
Erregek iru egun
pasa dizkiguna,
amaika apaizek galdu
digute beren osasuna.*

*Etorri zaigulako
gure Erregea,
Donostiko apaiz geyenak
oso erre dira.
Etorri izan bazan
Karlos orla errira,
aguro artuko ziguten (pozik?)
apaizak erdira.*

Bazituzten bi apaiz adiskide. "Txorron" apaiz zar gizagaxo bat, oso ona. Beste Miserikordiko kapillaba.

NOLA JOAN NINTZAN.

1873'garreneko Santiyo biyaramonean edo, Santa Kruz egun ayetan bota zuten Beratik (Frantzira), ta baita arma pilla itxasoz ekarri ere Ondarrabira.

Bost lagun jun giñan (bi Donostiyan Andre Graxiren etxean konpitero, calle de Narrica esquina a Pescadería.)

Oyartzun'en karabiñero, mikelete, boluntario. Aurrera Aritxulegi aldera.

Mutil asko giñan; geyenak armarik gabe. Oyartzun gañean goardiz.

DESEMBARCO.

Illaren 27 edo 28'an izango zan. Gu Gaintxurizketan ba-ez-pazan. An etorri zitzaizkigun gurdi pilla armaz beteta; gizonak lepoka.

Armak artu. Soldadu jantzirik ez. Ba-koitzak etxetik zuana soñean. Garbiketak eta egiten irasi genun.

San Inazio besperan Aritxulegin. ((Misa de campaña. Danak pillan batalloi egin gabe)).

San Inazio egunean ((batalloia egin zan)) Alzibar gañera. Karabiñeroak er-ten-aldiak egiten zituzten, ta guk Altami-llaretik su egin genien. Lenengo tiroak an izan nitun. San Inazio egunean. Gero amarretan Meza. Gero batalloya formatu.

((Egun artan edo egin zan batalloya.))

An kantatu genun lenbiziko aldiz San Inazioren martxa.

—Santa Kruzen mutillekin bakarrik egin al zan batalloya?

—Ez; berak bakarrik berreunen bat besterik, ezin. Beste asko sartu bear izan ziran.

GIPUZKOAKO LENENGO BATALLOYA.

Lenengo nagusi (coronel?) Aizpurua.

Bigarren " (T. C.?) Itxaso.

Irugarren " (Comandante) Empa-
ran Inozenzio (azpeitiarra)!!

- 1.^a Compañía - Capitán
Arregi'ko Beltxa (Oyartzuarra) (120 gizon).
- 2.^a Compañía - Capitán
Jose Martin Aramakua (?edo 7.^a).
- 3.^a Compañía - Capitán
Antxusa (Oyartzuarra).
- 4.^a Compañía - Capitán
Iñazio Urkizu (Aizpuruen illoba).
- 5.^a Compañía - Capitán
Inazio Mari (Oyartzun).
- 6.^a Compañía - Capitán
Legorretako maixua.
- 7.^a Compañía - Capitán
?
- 8.^a Compañía - Capitán
Etxeberria (gero Donostian relojero ezagutu genun).

Laster sakabanatu giñuzten. (1.^o de de Agosto.)

Gu (4'garrengoak) Zaldigain (iya Artikutzako mугan). Emen asi giñan ikasketan (instrucción).

Antxusa (3), Altzibar'en.

Arregi Beltxa (1.^a) Iturrioz'en.

Uztaren 15'an Goizuetara (festetara)
3 ta 4'garrengo kompañiak.

Uztaren 16 - Iturrioz'ara.

Emendik Alzara.

—¿Ez al zan mikeletik edo?

—Ez; an jangayak (errazioak) artu ta aurrera joateko ziguten. Ara zer zan: An-

txusa, Usurbillara joan, ta preso artu ditu Alkatea (a) Trampas ta sekretarioa, ta Aritxulegira zeramazkien. Gu bidali ba-etzpada. Txoritokieta aldera ginjoazela Garberaztik, Arzelus'ek bat-batean *deskarga* bota zigun. Uts oso. Arzelus Antxusa arrapatu nayeian zebillen, bañan alperrik.

—Loyolako Komunio aundian?

—Ez; ez giñan izan.

TOLOSAKO SETIOAN.

Ara joateko. Abiya. Berastegi. Ango elizan kantatu genun bigarren aldiz San Inazioren martxa. Oraingoan pausoa eramanaz (oñekin lurra joka).

Gero sakabanatu, Belabieta ta goardietara. Berriz batu Berastegin. Irura. Alkiza. 8 egun.

((Tolosako Miserikordi gañean bazan etxea baztanga zutenentzat. An ere izan giñan.))

Tolosako Miserikordian ere goardi egin genun. Orduko Erruki - etxea etzegon oraingoaren tokian. Iruratik zuazela, zubian sartu bañon lenxeago, exkerrera. Orain etxe berriak daude.

PARTIDA BERRIA.

Alkizan giñala esan ziguten Zubieta alderako partida egin bear zala ta nai zuenak pauso bi aurrera egiteko. Inguru abetakoak giñanak, beti ere Beko aldean nayago ta, nik ta beste batzuek bi pausoak eman genitun. Partida aundia, eun bañon geyago. Kapitana Meliton Zatarain (a), Usurbilko Torrekoa. Teniente Sasiain, Usurbilgo bikario jaunaren illoba. Abiatu giñan.

Guardiak, Usurbilgo San Esteban gañean ta Zubitako. Zubietan. Gabeko patrullak ta urmean (ur gutxi zanean) ibaiz beste aldetik. Usurbillen sartu bai bañon ez lo. Bi *ronda*: bat gau erdirarte.

Usurbillen etzan guarniziorik, ta boluntariorik batere ez.

Oriora zeramaten *convoy* koxkor bat ere arrapatu genun. Alako batean, gabe-ko bigarren *ronda* egindakoan, goyen giñan Romeroren jauregi ondoan; egun sentia. Zentinelak esan zun: Ara, Usurbillen (gure aurre aurrean). Txaparren

(a) Ambrosio ta Juan Jose osangille nere adiskideen aita. (A. Apalategui'ren oarra).

zubi gañean jendea ageri dek. —Bai; alaxen dek. Txapel gorriak. —Ea; ondo apuntatu. Bat, bi, iru, lau ¡pruum! Laxter ziran danak korrika Kale-txikira. Arzeluzenak ziran. Bat il genien. Plazentxitarra.

—BELABIETAKOAN?

—Ez giñan gertatu. Zubitan giñala jakin genuen Santa Kruz ta Lizarragarenak tiroka zebiltzala.

—“Joan bearko diagu”, zion Melitonek.

—“Goazen”. Artsaldean irten giñan ta Itxumitzan (Sorabilla ibai inguruan) lo. ((Asteasura Antxusa ta preso.)) Gau artan zetozten Asteasutik Santa Kruz ta bereak. Gu goizean Asteasura. Antxusa ta preso zeuden. Lizarragak itzaldi: “Berak Santa Kruz estimatzen zuela bañan ezin zeikiela... Etzuela berak (Lizarragak) Prantzira bota. Valdespinak eta danak ebaki zutela...”

Euskeraz polliki xamar egiten zun.

—Zer deritzaizkizu Lizarragaz?

—Gizon ona zala, ta onegi izateak galdu zula.

Zaratera bidali gindun, ta an giñala izan zan Belabitako atake gogorra. Tiroak ta entzuten genitun.

Bidani, Goyaz. Antxe giñan Antxusa il zutenean.

Oikiña aldera.

— ¿Zertara?

— Esango dizut: Moriones'ek Tolosatik berriz Donostira. Batzuk itxasoz Zarauzara, besteak Arratzain aldetik Orio, Zarauz. Azpeitira jun nai zun, bañan Lizarragak bere batalloyak alde ayetara eraman zitun, ta Moriones itxasoz Bizkairako asmoan. Gu (nere partida) Oikira. Zubia pasatzerakoan lanean ari ziran (gureak) zubia zulatzen. Oikian lotarakoan ¡prumm! zubia gora, Morionesenak ez igarotzeko.

24 - Olentzaro - Oikian.

25 - Egoarri eguna - Urdanetan Meza entzun. Ayan bazkaldu. Zubitan lo.

26 - Alegira - An berritu zan batalloya ta gure partida lenbiziko kompañia. Irugarrenean, Antxusaren ordeaz Azkoitiar Karlos Alkorta kapitan.

30 - Gabirira - Bañuetara - Mutillak atsa zutela - 10 egun - Ederki.

6 Ilbel. - Erregetan Azp. 8 egun. 1874.

BI ILLABETE GORA TA BERA.

Jo Zumarragara, jo Azpeitira.

—¿Zer ba?

—Ara: Gipuzkoan 8 batalloi osatu zira la bañan lau (3,4 ta 7,8) Bizkaira junak. Gero Aritxulegitik Asteasuraño bide luzea bait da ta gutxinaz beste bi batalloi bear ziran. Gañera Azpeitia gorde bear, kartutxo pabrikak an genitun ta. Tolosatik berriz, ta baita Getaritik edo Altsatsutik ere, bat-bateko sartu aldia egin zezaketen etsayak, eta orregatik genbiltzen Azpeiti inguruetan.

Orrela giñala Zumarragan eman zizkiguten udarako brusak ta oñetakoak. Andik laxter kapote negukoak; auts koloreak. Gero berriz Urrestillan galtzak; franja gorri azke geronek josteko.

EPAILLEAN.

1. Aingeru Goardako eguna, Tolosa entregatu zan. Ara joan ta antxe lo.

2 - Zizurquil - Sorabilla.

Iturrioz'tik Azpeitira berriz. Batalloya Elgoibar aldera ta gu (lenengo kompañia) atzerago.

BIZKAIRA.

Azkoititik aldapa gora bueltaka.

Nora ote goatxik?

Elgoibarko sarreran arrapatu batallona, sartzeko formatzen ari zala.

Aurrera - Bergara ote goaz? Ez; Eibarrara. Lo.

Illaren 3'an Durangora. Zimitorio aundi pean. (Lo?).

Zornozaruntz ginjoazela, bidean topo Segorbeko prisioneroak - ¡Adios! ta ¡Adios!...

Zornoza; pasa aurrera.

Bidebietan ez giñan geratu.

Amurrion. Lo.

Balmasedan 8 egun. Kafe ta kopa 6 koartoz (20 zentimoz) ematen ziguten.

ILLABETE TA ERDI GORA TA BERA.

Villaverde (de Trucios) 2 edo 3 egun.

Burgos aldera.

19, San Jose eguna. Callejo dioten erri koxkor batean. Paseoz erten giñan karretera aurrera ta Anton (Santiyo mendikoa) bidertzian exerita, egon.

—Zer dek, motel?

—Zer detan? Amaika San Jose egun eder pasa izan diagu ta orain emen...

—Tristurak eman ziyon.

—Motel, ator gurekin. —Tabernara eraman genun ta...

Carranzan (lo).

Villaverde. Valmaseda.

23. Laudiora (Llodio erderaz).

—Zer zenuten orrenbeste batera ta bestera?

—Zer izango genun? Moriones zebillen inguru, nundikan sartuko zitzaigun. Bazirudien batean Orduña aldetik joko zula; bestean itxas aldetik, ta gu ere ibilli bear.

Atzenean Castro aldetik jo zun...

SOMORROSTORA.

(*Emen mapa bat dago A. Apalateguiaren kuadernoan, Somorrostrokoa obeto adierazteko*).
(1).

24. Laudiotik Somorrostro gañera. Arajun da "rompan filas" esandakoan, baimen eskatu genun Arenas'etara joateko.

(1) Emen eta aurrera ere kakoen artean beste letra mota ontan jarritakoak, gerok jarriak dira, Aita Apalategui'ren kuadernotan dauden irudien faltaz gauzak nolabait ere adierazteko.

4'garrena an zegola ta lagunak ikustera. Illunabarrean gure tokira ginjoazela, bi-dean zalaparta ta deadarrak. ¿Zer ote da? ta naparrak mortero bat mendi gañera zeramatera. Aurrera. Gure goizeko tokira eldu giñanean danak erderaz ari ziran. ¿Zer da au? Arabako laugarrengoak gure orde. Gureak Cortes'era aldatu zituztela. Ara. An lo ta egunsentian trintxerara.

EPAILLAREN 25'an.

Lubakiak zotalezkoak. Barrendik zulo gutxi. Kañoi granadak zulatu ta pasa egiten zizkiguten. Gu makurtuta egon bear. Mutillak bi metrotik bi metrora edo. Gutxi giñan ainbesteri gogor egiteko.

Eguna argitu zanean, gure aurreko karretera beltz-beltz ikusi genun. Carreras aldera zijoazten. Gure aldera salla aundi bat ere. Kañoyak asi zitzaizkigun. Gu etzanda. Noizean bein granadak gure lubaki aurreko lurra jasotzen zuten ta guri kalte.

Aurreko muñoan geratu da salla. "Fuego a discreción" egiten ziguten.

Gerrillak ere asi ziran aldapa gora.

Illarrazuk deadar egiten zigun: “Berrogei pausora etorri arte ez su egin.” Gu egon ta egon. Urreratu dira bada berrogei pausora edo; beren kañoyak ixildu dira; orduan guk ekin. Beranduegi. Aurrrera zetozten, arrastaka ta; kefeak ez-pataz joka. Gutxiegi giñan ainbesteri egon-arazteko; ezker eskui ere inguratzen giñuzten. Atzeratzeko agindu ziguten. Bost miñutu geyago egon bagiña, danak galduak giñan.

Diyotenez gure kompañi batek (lenbizoak) uts egin zun ta zulo artatik sartu zirala etsayak ta gure atzera jarri. Besteak berriz zioten, gure eskuiko erreka zuloatik iyo ta guri atzea artu zigutela.

Orduan agertu ziran goitik gure batalloi, kastillano, arabar, ... Armak armatzeko jura burni otsa! bayonetak sartu, aurrera ekiñaz. Amar miñutuz lenago etorri izan balira, garaille giñan. Bata bestearen parean geratu ziran alkarri tiroka, belauna lurrean zutela. Beltzak gure lubakietan geratu; andik gora etziran aurreratu.

An il zan Alkorta azkoitiarra, irugarren kompañiko kapitana. Itxaso oñez.

Zaldiya, mutillak eskutik zeramala, balaren batek jo zun noski ta an jun zan galopeka aldapa gora soldadu artean.

26 TA 27.

Goragoko lubakietara.

—Ba-ez-padakoan egiñak al ziran?

—Ez nuke esango ordurako egiñak ziran edo gau artan egin zituzten. Andik suka bi egun ayetan.

Relevoak (aldaketak) lau ordutik lau ordura. Arabatarrak txandan. Lubakitik mendi gora ta bera agerian. An izaten genitun *baja* geyenak. Andoaindar bati granadak besoa purrkatu, ta beste eskuekin eutsi ta aurrera. Besoa moztu ziyoten bñan sendatu.

Zanjan zauritzen zutena, etzan andik ateratzerik illunaraño. Arabar bat ikusi genun zaurituta, Jainkoari promesak eta eskeñiaz... Gaba arte antxen egon zan. Sendatu zala.

Gabez etzan poxpolo pixtutzerik, ezta dunda edo kardatza erretzerik ere.

28 - Parlamento - Alkar berriketa.

29..... Goiko lubakietan. Ez aurrera ta ez atzera. Mendi gañeko zelayan txabolak egin genitun. Bai bear ere. Egoaldi oso txarrak asi ziran ta. Lurrean bayonetekin zuloak egin $a - b$. (1) Goyen c lotu ta bizkarrak zotalaz estali. Lau ta bost mutil bakoitzean. Batzuetan erortzeko okertzen asten ziran ta orduan barrendik bayonetekin txarrantxa ematen genien. Erri bat ematen zun. Txabola tarteko bideak oso labain, irrixt egiteko egoki.

JORRAILLEAN.

Burruka gogorrik etzan geyago izan. Egunez tiro gutxi; kañoizko bat edo beste. Aldaketa (errelevoa) ordutik ordura. Gabez lubaki lanean paisanoak eta. Egunez ez bait zan egiterik ta. Len bañon geyago zulatu genitun; gizona zutik ibiltzeko aña. Lurra kanpora etsai aldera.

Gero lur au zabaldu egin zuten ta orduezkero artilleroak ezin *apuntatu* lur zabalduak; soro urratua ematen zun ta.

(1) Itz auen ondoan badago irudi koxkor bat. An ikusten danez, trianguloaren antzeko txabolak ziran, a ta b beko muturrak ta c , berriz, goikoa.

29 - Cortes, 25'an, artu zutela bañan laxter utzi zuten. Guk, goardi beko zubi zarrean. (Seccio bat. Gañerako kompañi osoa gorago parapetoan.)

Nun, batean, ikusten degun konvoja zeramatemala karreteraz. Tenienteak: "¡Ea, mutillak! jarri ta ondo apuntatu." ¡Pruuum! An ikusiko ziran aurretik zi-joazten goardi-zibillak eta igesi mandoak eta utzita.

Tenienteak esan zigun: "Ea, kabo bat lau mutillekin, salta ta joaten dan." Nik bayetz, ta nere lau mutillekin joan gera. Manduak artu, zortzi, ta abia gurietara. Lenengoan ez giñuzten ikusten goiko etsayak sakonean bait giñan ta, bañan gorago irten giñanean asi zitzaizkiguten tiroka. Guk mandoen babesean aurrera, aldapa gora. Mandoak ostikoka balak artutakoan. Noizbait ere iyo gera. Bat bakarrik eritu; iztarrean. "Ez nazazutela utzi, Jainkoatik." Artu ta mando gañera bota genun. Mando batek 7 balazo; danak ariñak.

Goyan arabatarrak ((papera eman zигuten. Gu lau mutil ta arabar bi.)) ¡Bapo mutillak! An zegon jeneralak mando

bat artu zigun. Gure batalloya alde egiña zan (a) ta gu lau mutil ta arabar bi. An etzala egoterik ta alde; illuna zan.

Egun artako eginkizunagatik, sarjento egin ninduten ta gañera eguneko erreal zuben gurutzea eman zidaten.

Gau artan bada ibilli ta ibilli gure mandoekin nun genbiltzen ez genekigula (bi arabarrak zekiten) ta gau erdian Olabeagan giñala. Bazekiagu, ibai ondoan. Andik aurreraxeago ta Desierton. Emen lo egin nai gendun bañan obe gendula ibaya igaro; goazen bada ta Plenzi'raño ez giñan geratu. Iya goiza zan. Plenzian sardiñ freskoak. Gipuzkoar batzuk arkitu. Aizpuru koronela aurreraxeago zegola ta araño joan bearko gendula.

Aizpuruk ederki artu gindun. Alojatzeko; mandoentzat ukullu ederra eskeñi ziguten. An mandoak jarri ta gu lo antxe bertan. ¡Ura loa! Goizean esnatu giñanean gure ukullua zaldiz ta mandoz bete bete. Etxetik kanpora soldaduz ta ka-

(a) Gau artan alde egin zuten Somorrostro aurrean ziran batalloi guztiak. Etsayak atzetik arrapatu giñuzten ta. (Aita Apalategui'ren oarra).

ñoiz. Guk berriz, lotan giñala, iñor sartu zanik ere igarri ez.

—Zer zan ba?

—Bilboko setiotik zetozten kañoi ta batallói; brigadak...

Goizean abiatu nai bañan ezin gure txanda izan artean. Noizbait ere errenkadan jarri giñan. Aurrera. Kilometro bat ez genun egingo ta gure batalloya bide ondoan formatuta.

—Zer zabiltzate, mutillak?...

MAYATZEAN.

Gipuzkoako batallói geyenak Probin-tzira etorri ziran. Gu ta bigarrenkoak ez.

Zaldibar'en iru egun.

Elorriotik Arlaban'era. Andik sartuko ote ziran Gipuzkoara. Gu lau mutillak zazpi mandoekin.

Azpeítira. Arratsaldeetan mando gañean Loyola paseoz. 3 edo 4 egun. Mandoak an eman genitun. Bi gure batallóiko gurdirako; beste bostak brigadarako. Andik irten bañan len mandoai azken ikus-taldi ta igurtze legunak egin genizkien.

Mondragoira. An lo egindako etxean ezagutu nun gero nere aitagiyarreba izango zana.

Arlaban.

Gatzaga. Illundu ta irten. Goizerako Salvatierran. Lo egin nai gendunean "toque a la carrera". Gora motellak. Vitoriko zaldizkoak zetoztela ta erria inguratu bafion len mendi zuloa artzera.

Urbasa barrena.

San Martin? (lo).

Estella.

Alloz. Emen jakin genun Ernani artzeko asmoetan zirala Gipuzkoan.

ESTELLA AURREAN.

San Joanak ziran. Iru eguneko burruka gogorra. Gu Grozin'en. Granadak elizatxoan jo ta arriak botatzen zizkiguten.

Sasiain tenientea eritu ta geronek eraman genun Iratxeraño. Irugarren lo egin da deitu ziguten. ¿Orain ere bai? Jarri giñan gere tokietan tente ta nun urrutira ikusten degun etsai gurdi errenkada, len

etorritako bidean zijoala. Ziraukira. Artsalde artan bertan.

29? Iratxe aurreko "gran parada" an ezagutu nun Erregea.

Altsatsura. Illabete "contra caballería"-ko ikasketak. Olatzagutiko zelayetan ta.

GIPUZKOARA.

Agostuko 22-23 Ataun'en lo. Tolosara. Emendik Andoainara iges aldi bat egin genun. Illunabarreko *listara* ez giñala etorri ta "arrestados" Tolosako justizi palazioan.

24 - Urrengo egunean San Bartolomé, Ibarrako jayak. Nere gurasoak ta osabak jun dira T. Coronel'engana ta azkatu gaituzte. Andoaiñara. Destakamento. Aste bat edo. Arrikarte'ra. Gure batalloyak mutil asko galdu zitula ta ordaintzeko mutil bilketan Usurbil ta Orio'ko inguruetan. Ortarako gure Konpañia. Zubietan biltzen genitun mutil berriak.

—¿Oyek ere boluntario al ziran?

—Bai; gogoz etortzen ziran. Baziran zai zeudenak ere.

—Zubitan zenbat mutil ainbat errazio. Bañan gero, bazkaitara beren etxera nai zutenai uzten genien, eta errazioak guretzat.

(Emen Santa Barbara ta Buruntza'ren tarteke mendien irudi edo croquis bat dago.)

SAN MARTIÑETAN (1874).

Irun'en ta burruka gogorra. Gu ez giñan an gertatu. Andoaiñen. Ara etorri zitzaigun Naparroako laugarrena. Naparrak amorru bizian zetozten, berak zeuden tokira uste gabean liberalak sartu zitzaiztela ta. Andoaiñen geratu ta gu ayen orde z Goiburutik Oyartzun gain aldera.

Pagollagan errazioak. Goizeko amarrak edo izango ziran.

Uxategi. Otz ta ebia zan. Gero elurra. Galtzarrietara igo giñanean elurra ia belauнетarañokoa.

Gure kapitanak zaldia bazun, bañan otzagatik oñez zijoan.

Orrela, gure mutil bat otzaz ta aulkeriz lurrera erori da. Kapitanak zaldi gañera jasotzeko. Jarri gendun ta baginjoazen, gu ere ez oso sendo. Gero beste bat

lurrera, geroxeago bestea. Gure zaldi gañekoa ere erori ta an utzi gendun. Noizbait ere Lesakara eldu gera. Illuna zan. Goizeko amarretatik ezer artu gabe. Erria guda gizonez bete betea zegon. Errian zeudenak erriz kanpora, baserrietara ta irtenazi zituzten ta gu erriko etxeetara. Su egin. An bertako gizonak irten ziran guk bidean erori ta utzitakoen billa. Batzuk illak zeuden, beste batzuk sukondoan pixtu ziran. Artean udarako blusak genitun. Lo.

Santestebanera. Bide motxa. Lo.

Irurita. Zubieta. Leiza. Ibarra. Emen eman zizkiguten kapote (grisak) ta brakak (franja berdea). Andoaiñara berriz.

URNIETAKOA (1874).

Gu Arkaitzaga gañean. Bala bat edo beste etortzen zitzaigun. Utsa. Goitik begira.

Gure azpiko baserrian, Axkortan, arrapatu genun (Ama Berjin besperan) konpañi osoa. Andoainen ikusi genitun; beren kapitana azuna bañon berdeagoko luze bat.

Ama Birjin egunean. Goitik ikusten genun dana. Aritzola (Ernani gañean) Estado Mayor ta tropa pilla aundiak.

Andik abiatu ta Urnietako estazio parean gerrillak zabaldu; gero konpañi osoak bota... Denak alperrik.

I 8 7 5.

Meagetakon ta ez giñan gertatu. 1875' ko Otsailla.

BURUNTZAKOAN.

1875. Kandelarietan. Gu Andoain'en. Beltranenean (Azkonabitako parean). Goizargitu bañon len, tiroak Arrikaitzaga aldera.

Zer ote da? Gureak bata besteak tiroka ari ote dituk? Goizean lañua zan. Garbitutakoan Arkaitzaga gañetik Arrikarteraño liberal errenkada beltz beltza.

Gu Andoaingo aurrean formatuta.

Surik etzan izan. Berak jetxi ziran berez.

ORIO AURREKOAK (1875'garreneko Otsail asieran).

(*Emen Orio ta Zubieta inguruetako mapa bat dago.*)

Udaraberri zan ta gure etsyai zer edo zer egiteko asmoz ziran.

Alako batean, mikeleteak ta, Orio aurreko ibaya txalupetan ta pasa ta Amuzko Etxeberri artu ta antxe geratu.

Zer nai zuten? Azpeitiko bidea artu? edo gu arunzko aldera eraman, berak beste aldean egitekoa egiteko? Au izango zan noski.

Gu —batalloi bik— inguru guztia artu genien. Lenengo batalloikoak Zubietatik asi ta Ayaraño: San Esteban, Puella, Zarate (benta), Eztenaga; berago Pagarraga, Lokate, Azpilkueta.

Ayatik itxasoraño Zarauz'en zeuden 5'garrengoak jarri ziran.

Ayako kanposantuan kañoyak ipiñi genitun.

Amuzkotik bota bear genitula, gure nagusiak erabaki dute. Gabez. (Martxoaren 10'an.)

Ni ta beste batzuk Lokaten giñan. An armak utzi ta jetxi gera Azpilkoetako bentara, iñori ezer esan gabe. An mutil pilla aundia jan ta edan. Gu goiko bizitzan. Gu an giñala ta ezer ez genikula, abiatu dira nere konpañiakoak Amuzkora. Bentan giñala bada entzun gendun ti ta. Zer ote da? Gure konpañia Amuzkoan tiroka. Ea, mutillak. Abiatu gera aldapa gora. Lokaten armak artu ta bagiatxik ito itoan. Amuzkora orduko bazetozten atzera gureak.

Illunakoan sartu ziran lubakian, bai an billatutakoak bayonetaz josi ere, bañan barrengoak gogor egin zuten, ta gureen lanak alperrik. An il ziguten Jose Petritza, Zubietako semea, atea aizkoraz joka ari zala.

Jose gizagajoari gerrikoan ontz urrezkoak billatu zizkioten. Bai ta urrengo egunean mikeleteak deadar egiñaz ziguten: “Orlako asko al dituzute? Bialdu, bialdu onera. Pozez artuko ditugu ta”.

Parlamentoa. Ostiral santu eguna zan. Gu Amuzko áurrean Urkigian (etxerik etzan; urkiak baizik). Mikeleteak asi ziran: “Gaur ostiral santu eguna; ez degu

su egiteko ordenarik.” “Ondo —guk—, noizean bein pake aldi pixka bat.” “Nai al dezute armarik gabe etorri?” “Bai” guk. (Goizean zan.) Jetxi giñan batak ta besteak armak utzita, ta an aritu giñan berriketan, bazkaitara arte. Artsaldean berriz. Paisano ta asko. Orrela giñala gure artilleroak kañonazoa botatzen digute. “Ea, motellak; bakoitza bere zulora. Aguro gero.”

Pagarragan gure injenieroak bateriak egin ta kañoyak ipiñi genitun ta zipli zapla zubia purrukatu genien. Erriari ez ez. Orioko apaizak etzun nai ta.

Urkigiko trintxeratik gure teniente Martin Jose (Ernanin alprajeta denda izan zun) betaurrekoekin begira zegola, balak betaurrekoak jo ta garrondotik irten. Sendatu zan, bañan aurpegi guztia kristal zuloz betia utzi zion. Emigrazioan il zan. Etzun etorri nai izan.

Bitartean liberalak Igeldo gañetik asi ta Oriamendira fuerteak (gudetxeak) egi ten ari ziran. Egindakoan (Mayatzean) Amuzko, Orío ta Usurbil utzi ta atzeratu, ta gu aurrera. Mendizorroztik Teresategi-

ra. Orio ta Usurbil oso guretzat geratu ziran. Orion jarri zan 5'garren batalloya.

(*Emen Donosti inguruetako mapa bat dago.*)

Usurbillen jarri zan seigarrena.

Lasarte, Arrikarte ta Andoañen 1, 2 ta 7. (Ez beti.)

3 ta 4'garrena Txoritokieta ta San Marcos'en.

8'garrena Irun aldera.

Ernaniko bidean, kalte aundi egiten zieten gure Erastorbe (Mugerzak) ta, Oriamendi bideko etxeak sendotu ta bide ondo esiak zotal ormaz egin zituzten.

Intxaurrondo.

Txandermenea.

Katxola (orain Pakea) bide ezkerre-
ra; Ayeteren urren.

EXPEDIZIOA.

(Bigarrena. Lenengoa Somorrostro ta Estellakoa izan zan.)

San Juan eguna edo. Trenez Zumarragaraño. Bergara (10). Elgeta. Elorrio. Zornoza...

Valmaseda aldera...

San Pedro eguna zan. Burgos aldeko erri txiki batean illunabarrean sartzeko giñala. Aurretik gastadoreak, urren banda, gero plana mayor. Errian sartu bañon lentxeago erritik zetorren batek esan du: ¿Nora zoazte? Liberalak barruan daude, zuen zai emboskadan.

¡Alto! Geratu ta etxera. Etsayak ikusi zutenean, kaballeria bota ziguten. Zaldi gañetik tiro gaizki egiten da. Kuadro formatzeko. Goazen aurreko menditxora. Andik su gogor egin genun ta pakean utzi giñuzten. An bertan lo.

Araba aldera. Maeztu. Naparroara. Población. Logroño aurrera.

VIANA.

Garagar illaren 28 edo 29'an.

Ibiltaldi gogorra egin genun. Erria bañon lentxeago egon ta danak lurrean etzan giñan. Aurrera. Sebastian Komandan-teak: Ea, mutillak, beste pixka bat. Jai-ki ta musika joaz sartu. Plazara. ¡Alto! ta etzan berriz antxe bertan.

Bando egin zuten guri etxeetan lo tokiak atontzeko.

Morgrobejo zan an guda nagusi.

Urrengoan, beragoko barriora aldatu. Goazen. Andik Ebroko ibarrak. Logroño gure aurrean. Gure nagusiak betaurrekoaz ikusten zuten trenak nola zetozten soldaduz bete beteta.

Illunabarrean "toque de llamada". Aurreko muño batera. Bageneramazken mortero bi. Illunakoan asi dira artilleroak morteroak ta bomba Logroñora botaka.

Urrengo egunean Morgrobejok alde egin du La Guardi aldera, zaldizkoak berekin eramanez.

SAN INAZIO EGUNA.

Bazetoztik Logroñotik etsayak, iru salletan. Gure ezker aldera zaldizko salla gu inguratzen. Gure eskuikoak zearka; gure konpañi bat arrapatu zuten. Erdiko salla aurrez aurrez errira.

Gu (gutxi; konpañi erdi edo) ostatu etxean. Logroño aldera. Ederki ikusten genitun nola zetozten. Gariak iya mozteko

zeudela, su eman zien. Kea izugarria soro ayetan.

Guk, leyotan koltxoyak ipiñita, su egi-ten asi giñan. Uste genuen seguru giñala. Norbait etorri zitzaigun esanaz: ¿Zer ari zerate? Zuen batalloyak eta alde egin du-te. —¿Bai? ta Bai. —Goazen bada. Le-nago errazioak artu genitun ta guretako batek baita ardo zar ontzi bat ere.

Erritik ertetzerakoan zetozten ezker aldekoak. Amar miñutuz ez giñuzten er-dian artu.

Laxterka laxterka aldapa gora; noiz-bait ere batalloya artu degu. Eskuiko ka-balleria aurreratu zitzaigun. Sebastian'ek: Kuadro egin. Bai egin ere. Olatzagutin ikasiyai eskerrak. Su; aguro itzuli ziran. ¡Ura burni otsa!

Mendi gañean geratu giñanean, guk (ostatukoak) zatuak beteak; besteak utsik. Sebastian'ek: Ardo tanta bat bai al de-zute? —Bai, jauna, bai. Ar beza; baita ogia ere. Artu zitun ta erreal bi eman ziz-kidan.

Gu an gebiltzala izan ziran:

Zumelzu (Treviñoko burruka). 7'an.

Billafrankan Carlos VII'k Fuegoak juratu zituna.

(Oraindik izan zan Naparroara expeditzioren bat, bañan aguro itzuli ziran. Liberalak Donostira jende asko ekarri zutela ta.).

URKABE.

Andra Mayetako Tolosan.

Andoañara.

Iraillaren 15'an artu ziguten. Egun argi bañon lenago. Andoaindik irten ta karlistak atondutako bidetik joan giñan.

—Zer bide zan ori?

—Ara: Andoaindik Oyartzunako bide zabala, Ernaitik dijoa, ta guretzat ez bait zan Urnietatik aurrera sartzerik eta orregatik atondu zituzten Goiburutik Bente-tara arteko bideak. Artilleri ta kotxe ta danentzat.

Prantzillagan lo. Otzazuloetatik Bente-tara. Emen egon alditxo bat. Goiz goizetik entzun gendun San Markos aldeko tiro-zalaparta. An zan gogorrena.

Gure aldera kolumna bi. Bat Errenteritik. Malda gañez, aldapa legun legun sakonik gabe Zamora gañeraño errex etortzen ziran. An aurrean bagenun trintxera, konpañi bat edo. Abek galdu ziran. Zamoran zeudenak atzea artu zieten uste gabean. Ekin diyote bayonetaka. An il zuten Etxeberria tenientea (Eskoriatzako) ta besteen bat. Gañerakoak alde.

Urkabe zetoztenak Iturriotztik Munnuaundi aldera. Gu irten giñan Bentetatik eta arbola tartean ikusi ditugu; bai su egiñ ere. Atzeratu egin ziran.

—Ta Zamorakoak?

—San Markos aldekoa nola ote zijoan zai. Beltzak gora iyotzen baziran, ayek artuko zituzten atzetik; bañan etzizayen orla gertatu, ta Errenterira berriz. Bai aguro ere. Gu ayen ondoren. Laxterka. Bidez, morralak arintzeagatik arroza ta pillaka boteaz. An billatu genun Etxeberri gizagajoa bayonetakaz josiya.

MENDIZORROTZ'KOA.

1876 Ilbeltzaren 29'an.

Gu Arrikarten giñan. Artsaldean, aurrera joateko. Teresategi aldetik sartu gi-

ñan. Liberalak Belartza goikoan ta bekoan sartu, gaba pasatzeko asmoan.

Guk ekin genien bekoai, etxea zulatzen ari zirala. Atzeko atetik jun zitzaizkigun goikora. Andik arrika egin ziguten.

MONTEBIDEO.

(Emen Montebideo ta Ergobi inguruetako mapa bat dago.)

Montebideo (Ernaniko estazio parean).

—Montebideo zuen mendean?

—Bai.

—Nola zeikeen bada, etsayak Ernani ta Astigarragan zirala?

—Liberalak Astigarraga utzi zutenean artu genun. Andik Ernanira tiro noiznai ta angoak naigabe.

MIKELETEAK.

Amuzko-etxeberrri ta utzi zutenean Loyolan jarri zituzten. Emendik Donostira iges-aldiak (gabez batez ere) egin oi zituzten. Ezin jun zeitezken karreteratik, Alkoleako goardiak (boluntarioak) galerazi

egiten zien ta, mendiz, ibaya igarota Txorkoenetik... ta Polloe edo... Atotxara.

Alako batean, mikeleteako agintariyai esan diote urrengo egunean, egun sentirako, Txoritokietako bean izan bear zutela.

Zendoya kapitanak kornetak jo erazi ditu, oraindik mutillak lo zirala. Jaiki bear. Formatu. Lista pasa. Mutil batzuek falta. Zendoya amorratuta. Batzuek Donostira junak. Sarjentoak esan omen zion: —Goyen ere batzuek izan bear dute. An dijoa Zendoya ta... belar pilletan ezpata sartu, bai bayonetak ere. ¡Ai, ai, ai! Ator, ator. Pitax tolosarra ta (etzan Pitax bakarrik). Bizkarretan zigorkadak emanaz daramazki... Txoritokietara.

MENTA ZIKIN.

1934 - Jorraillaren 18'an. Etxera datorkit Anastasi (Jose Antonioren emaztea). Senarra gaizki dagola ta. Ara noa.

19 - Menta zikiñara J. L. Azpiazu'rekin karlisten bateriak nun ziran...

20 - J. A.'rengana. Gaizki arkitu nun; esan niyon orratik: "Atzo Menta zikiñen

izan nintzan.” ”¿Bai?” Ta bai. “An egon nintzan zentinela...” Nik “Bateria ¿etxe ondoan al zegon?” “Ez; etxe ondoan metak eta alderako.”

21 - J. A.'ok Elizakoak; berak eskatuta. Kaputxino Nagusiak aitortu.

1934'garreneko † Jorraillaren 27'an

G. B.

(1) Alkolea'ko (gaur Martin Santos'en klinika) aldapa jetxi, ta, zubian sartu bearrean, ezkerretara, zubiaren eta ibayaren ixkiñan, an dago Aztiñenea baserria. Ura ez da asko aldatu. Uraren ertz ertzean dago, eta, batez ere maria gora danean, ibaya dauka ispillutzat.

Bertan bizi dira Jose Antonioren lengusu bat, Pedro Arteaga Galain (84 urte), ta illoba, Inazio San Sebastian Arteaga (61 urte). Bi jaun auei zor dizkiegu orain emen emango ditugun argitasunak.

Donostiko baserririk zarrenak izango omen dira: Mantio (Okendo'ren jayotetxea), Baratzategi, Tuniz, ta Aztiñenea.

Aztiñeneak ba omen du beste aspaldiko izen bat: Zubi-muxu.

Lengo zarrak ziotenez, toki ontan lendabizi egurrezko zubi bat izan omen zan, gero arrizkoa egin zuten estrata edo galtzara igarotzeko. Kamiyoa egin zutenean, zubi zarraren gañeko aldea zabaldu, ta estrataren tokian kamiyoa jafri zuten. Arkuak lengoak omen dira oraindik.

Bi anai ibilli ziran karlistakin: Jose Antonio ta Franzisko.

Bi arreba, Dolores ta Manuela, oñez joaten oi ziran Azpeitira ta, anayai arropa garbia eramatera. Baita Aritxulegira ere.

Bein, Manuela ibayan arropa garbitzen ari zala, San Markos'tik botatako granada bat aldamenean lertu zitzayon.

Liberalak Jose Antonioren aita (Jose) ta arreba (Manuela) Donostiko Gaztelura eraman ta an eduki zituzten illabete pare bat.

Kartzelatik irten da Goyerrira joan ziran, Legorreta'ko Iparragirre baserrira. An jayoa zan Jose Antonioren aita.

Gerra bukatuta, Jose Antonio Galicia'ra joan zan **jardinero** ikastera. An urte pare bat egin zun.

Gero Donostiko jardineruen kapataza izan zan. Gipuzkoako Plazan ta Alderdi-Eder'en ta, ibiltzen ziran lanean. Illoba (Inazio) maiz joaten zitzayon bazkaria eramatera.

Bere kontu ere artzen zun beste lore-toki askoren lana.

Emaztetzat artu zuena, Anastasia, Mondragoi'ko alaba zan. Seme-alabarekin alargun gelditu ta Donostira iñude etorri zan. Alkar ezagutu ta ezkondu ziran, bañan etzuten seme-alabarik izan.

Jose Antonio langille purrukatua zan. Etzun bate gastorik. Tabernara ere etzan joaten. Diru puska bat egin zun azkenean. Etxe txiki polit bat egin zun Aztiñenea'ren ondoan bañan ibayaz eta zubiaz beste aldean. "Anastasia-enea" jarri zion izena eta oraindik ere alaxe du.

Etxe onen ondoan baratza, dana lore-landarez betea. Arretaz kontu egiten zien. Esate baterako, gerratik etorrita lora tartean igaro zun bere denbora guztia.

Gizon liraña omen zan, ondo egiña.

Aita Apalategui maiz etorri omen zitzayon.

Biotzetik il zan, bate miñik gabe.

D. PEDRO BELDERRAIN (1)

Oyartzungo apaiza (D. Pedro zarra).

1862'garrenean jayoa. Gudatean gazte-txoa zan, bañan gertatutakoak ederki dakizki.

1933 Mayatzaren 4'an.

(Emen Oyartzungo plano bat dago.)

Udaletxean mikeleteak, gero karabiñero ta soldadu xarrak. Elizaraño joateko enparantzan iriki zuten lurpeko bidea.

Santa Kruz sartu zanean, etxe ontan

(Plazatik Udaletxe edo Kontzejura begira jarri ta ezkerrekoa.)

(1) Ikusi: Aita Apalategui, C-10, 113-122.

izan zan Antxuxa, ta aurreko (Udaletxe) leyoan sartu ere sugarri botilla.

Udaletxe aldemenetako 1 ta 2, Santa

(Planoan 1 ta 2'rekin Kontzejuko ezker eskuiko bi etxeak seinalatzen dira).

Kruzek erre izan balitu, mikeleteak galduak izango ziran.

Emen jarri zun Santa Kruzek kañoi-

(Planoan seinalatzen da San Juan kale pa-sa ta urrengo kale-kantoya esku aldera).

txoa. Gero mendi gorago eramán. Biyak alperrik.

Pared con impactos de las balas liberales.

(Emen planoan seinalatzen da kañoya jarritako kale-kantoyaren etxea.)

Etxe abetatik egiten zuten su karlistak leyoetan koltxoyak jarrita.

(Planoan, Kontzejuaren aurre aurreko etxeak.)

Lenengotik liberalak bere etxetat Udaletxea artu zuten. Ogei ta amarren bat boluntario, Indart eskribaua nagusi ta berrogeiren bat mikelete.

Kapitana Fernández (gállegoa edo) zuten. Gizon arro zakarra. Errikoak, geyenak karlistak bait ziran ta, etzien Fernandez'ek pakean uzten. Tabernan ta beti irainka. Askok alde egiten zuten karlistetara Fernandez'en zirikaldiagatik. Ezin ikusi zuten.

Erriz alde, Alzibar ta Iturrioz'en, nik dakit zenbat ixtilu izan ziran. Batean, karabiñero (amar edo) Alzibarrera abiatu ta arrapatu. Bestean mendian burruka egin ta, beltzak errira zetoztenean, atzetik karlistak tiroka ta zirikaka ta orrela.

SANTA KRUZ GAU BATEAN.

¿Mayatzen?

Bere partida bete betean zuenean sartu zan. Bost eun mutil izango zitun. Oyarzuarrak asko. Mikeleteak udaletxean ziralara, etxe guztiak artu zitun. Kañoitxoa ere jarri ta ekin, bañan kalterik etsayai ez. Mikeleteak ere su galanki leyoetatik. Mutil bat il zioten kañoi ondoan. Gero mendi gora jaso zun. Antxusak, badakizu, iya su eman ziola Udaletxeari. Larri ibilli ziran itzaltzeko.

“Fernandez... matar” deadar egiten zioten karlistak, “bizirik erre...” ta orrelakoak, berak barrendik entzuten zitula.

Norbaitek esan zion apaizari udal ezker eskuiko etxeak erretzeko ta barren-goak galduak zirala. Bañan etzun nai izan.

Goizean alde ta len bezela. Santa Kruz alde egin da bereala, bota zituzten libera-lak ezker eskuiko bi etxe ayek.

SETIYOA.

Udaran, Santiyo inguruak ziran.

Karlotarrak, Ondarrabiko ondartzan pusill pilla galanta legorreratu ta bear bezelako batalloyak egin zituzten.

Santa Kruzen mutillekin egin zan lendarbizikoa. Aizpurua buru.

Abek inguratu zuten Oyartzun.

Arregiko beltza Iturrioz gañean. Antxuxa Alzibarren. Besteak Urkaben ta abar.

• Mikeleteak Udaletxean naiko etzutela Eliza artu zuten. Batetik bestera joateko, enparantzan lubakia egin bear izan zuten.

Karlistak, berriz, erri gañeko menditik tiro egiten zieten, ta berak, berriz, kanpantoretik inguruan ikusten zuten danai.

Amabostean bein ekartzen zizkieten Errenteritik (errazioak) jan ta edan gayak. Ortarako, Urkabe gaña tropaz artzen zuten, ta orrela errian gurdiak sartu.

Mikelete ta boluntarioak alde egin ta soldadu xar ta karabiñeroak etorri ziran.

Iya zazpi illabete.

Tolosa utzi zutenean, Epaillaren 1'an, azkatu zuten ere Oyartzun.

SAN MARTINETAN (Nv. 1874).

Karlistak Irun artu nayeana.

Asalto egin bear zutela. Zein batalloik ekin bear zuten izendatu ta Txakurtxulo Irungo katean (Bentak bañon Irun alde-
rago). Azkenean uts.

Karlistak guda-nagusi D. Hermenegildo Zeballos; karlista oso leyal bañon guda-agintari buru gutxikoa. Etzula bear zanean agindu (Ernanikoan bezela) ta ez dakit nik zer. Etzuten karlistak gauz onik

egin. Asaltorik ez. Mutillak amorro bizi-
yan, traizio zala ta...

Orrela, badator Donosti aldetik etsai
salla izugarria.

*(Emen Oyartzun inguruetako irudi edo
croquis bat dago).*

Gobernuak ifar alde abetan zun guda
nagusi goenekoa zan. Ebroko alderdietan
zebillen. Irungo gertaerak jakin zitunean,
ango tropa sallak bildu, Santander'era
tenez ta emendik Donostira itxasoz.

Irun aldera jotzeko iru zati egin zitun
bere gudari sallak.

*(Emen Donosti ta Oyartzunen tarteko ma-
pa bat dago, gudari-sail bakoitzak nundik no-
ra jo zuan adieraziz).*

Salla bat ezkerretik Jaizkibel menditik.
Bestea eskuitik Txoritokieta ta San Mar-
kos (Zamalbide - Oyartzun). Besteak er-
ditik.

*(Emen ere beste irudi edo croquis bat San-
tiyo-mendi, San Markos ta Txoritokietakoa).*

Zeballos gizagajoa an zegon Astiga-
rragako bentetan zer egin etzekiela. Ez
bear bezela, ez dem.... agindu. Liberalak
aisa Irunen sartu.

Karlista batalloi nagusi bakoitzak al zuen aldera jo zun. Geyenak Bera ta Lesakara mendiz. Txakurtxulo Oyartzunara. Arren urren Errege bera. Oyartzungo enparantzan 3'garrena formatu ta "¡Viva Erregea!". "Viva" erantzun mutillak, bañan norbaitek deadar egin zun "¡Mueran los ojalateros!". Zeballos'engatik batez ere.

Zamalbiden zegon 4'garrena (edo 5.º?) naparra. Etzekiten nun ziran, ta ezta San Markos bera zetozkietela etsayak. Alako batean, mikeleteak beren aurrean.

"Zeintsuk dira oyek?" (¿Quiénes son esos?)

"Mikeleteak".

"¿Qué es eso de mikeletes?" Ez bait zuten mikeleteen berririk.

"Peseteros" esan zun norbaitek.

"¿Peseteros?" ¡A ellos!". Bayonetak pusil muturretan jarri ta ekin diete. Mikeleteak atzera. Bañan beren bizkar zetorren tropa salla aundia, ta ayekin bat egin ziran.

Ori ikusterakoan naparrak asarre egin ziran. Oso gero. Bat batean etsayak gñera etorri zitzaizkiela, ezer ez jakin gabe

ta... Amorro amorroz bide aurrera jo ta Andoañan gertatu ziran.

Don Carlos Lekoene baserrira lotara. Txakurtxulok konpañi bi eman zizkion. Urrengo goizean mendi gora abiatu ta zaldia lertu omen zun.

Txakurtxulo erre errean zegon.

¿San Markos artu? ¿Kutarro ere artu? Andik Oyartzun aldera etorriko zirela edozeñek ikusten zun. Iñork agindu gabe artzen du batalloya ta, pipa errez, etsayen bidera dijoa. Munuaundin jarri (Munutzikin berriz Arregiko Beltza). 6 konpañi ta mutil gutxikoak.

(Asieratik, konpañi bakoitzak 100 mutil bazitun, bañan Somorrostrokoekin asko gutxitu ziran. Geroztik geitu zituzten; ala ere Txakurtxulok konpañi bakoitzean ¿zenbat izango zitun? (irurogei bat mutil? Sei konpañiak ez beintzat 400 gizon.)

Asi ziran surtan. Lenengotik il zane-tako Beltxa. Oyartzunera esku eskallera-ekarri zuten.

Txakurtxulok bere aurrekoai bakarrik begiratzen zion, ta ara nun mikelete salla, Olazabal nagusi zutela, Munuaundi atze-

ra joan dan ta bat batean su egin ta Txakurtxulo bera jo. (Atzetik; naigabe aundi izan zun.) Zauri orregatik il zan.

Mutillak inguratuta zirala ikusi zute-nean, danak alde. Orduan ta sasoi ede-rreran Lekoenera Erregearekin jun ziran bi konpañi ayek etorri ta gogor egin zu-ten, ta baita etsayak geratu erazi ere. Ayei eskerrak etziran mutil asko galdu.

KARLISTAK OYARTZUNEN.

Urte t'erdia luzetxo (1 Mar. 74 a 15 Spt. 75) ((zazpi illabete t'erdia)) izan ziran karlotarrak Oyartzunen jabe.

Geyenean 8'garrena egon zan. Bikuña Errexilgo sekretarioa nagusi. 4 konpañi bialtzen zitun Irun aldera, bi Errenteri gañera. Errian beste bi, gañera musika ta Plana Mayor.

TXOKOA.

Etziran Oyartzungo gizon danak ar-
metan jarriak. Gazteak batalloyetan; ez-

konduak berriz edo bigarrean (ezkon berriak) edo terzioetan. Abek pusilla etxean noiz deituko zieten zai bolarako joateko. Bañan oraindik baziran beren etxeetan banaka batzuek (edo zarregiak edo seme bakarrak...). Abek mordoxka bat egin zuten. Orain estazioa dagon ortan egin oi zuten guardia. Txokoa nagusi.

Alako batean, Txokoa afari ederrean jan ta edan ubari, gero lo, ta goizean liberalak, Urkabi bide zijoaztela, atxitu digute. Donostiko gaztelura eraman zuten.

A L Z A (I)

I.—M A R T I L L U N. (1933).

Altzako tabernaria.

1931'garreneko Abenduaren 29'an.

Altzan lau karlotar arkitu ditut. Igandero batzen dira Martillun'en tabernan.

Martillun San Kruz'ekin ibillia.

¡Gure ibillitaldiak! Illunduta Leizatik erten; Goizuetan egonaldi txiki bat egin, ta goizerako Oyartzun'en.

Gero lenengo batalloira.

(1) Ikusi: Aita Apalategui, C-10, 4-9.

BELABITAN.

Lau konpañi giñan Berrobin Itxasorekin. Beste lau Belabieta mendian sakabanatuta.

Apaiza azaldu zanean berarekin jun giñan.

Goizean Asteasu bekora apaizarekin.

Asteasu goikora abiatu dira Antxusarekin. Antxusa au, Oyartzungo estudiantea, kapitana ta an zijoazten artean malla goragokoena.

Antxusa il da (Goyaz'en) urrengo egunean Azpeitira, ta an sakabanatu giñuzten.

Ni ta beste asko bigarrenera.

ESTELLARA.

San Juan besperan lubakian sartu, San Pedro besperan erten.

Gabez ere goardia egin bear zan. Etzan lo egiterik. Noizean bein zentinelak: "allerta... allerta..." ta azkenekoak: "Allerta estoy." esan oi zuten.

NAPARROAN.

Estellakoan ondoren an geratu giñan.
Lorka (errian) giñala, Enparan'ek pa-
loak eman nai izan zizkion guretako ba-
ti, bañan Iturbek galerazi zun.

TXORITOKIETAN.

San Miel eguna, goiz goizean, mikele-
teak Irazuene (goy) baserrian (Txoritokie-
ta pean) formatu ta musika joaz gora ekin
zioten. Etziran, iyo ziran danak, bere oñez
jetxi.

Txoritokieta a u n d i (Arkaitzaundi),
Txoritokieta txiki.

(Emen bi mendi auen irudia).

Au (txikia) artu ziguten mikeleteak
goizean, bat batean. Bañan ortik aurrera
Txoritokieta aundira jun nayeian galdu zi-
ran. An il gendun Amante.

2.—LAUREANO. († 1933, *Abenduaren*
17'an.

Gizon luxe giyarra, 80 urte. Iturritik
ura zeraman, baratza ontzi bete.

—Ni Otxaboren partidari ibilli nintzan.
Otxabo mikelteetan sarjento izana, kon-
pañiko diruak jokuan galdu ta guregana
etorria zan. Kapitan egin zuten.

Guk braka ta txapela gorriak, mikel-
leteak bezela; kapatxoa ez izatea. Beste
karlistak etzuten bada praka gorririk. Ez;
guk bakarrik.

Oyartzungo parean eritu niñuten. Lepo
ondotik bala sartu ta sayetsetik irten.

—Zenbat ziñaten partidari?

—40'ren bat.

—Nun lo egiten zenuten?

—Ez genun toki jakiñik. Batzutan
Santiyon. Baita eliz barrenen ere. Beste-
tan baserrietan.

—Zertan aritzen ziñaten?

—Ibilli; batzuetan gabez, bai egunez
ere. Ergobitik Errenteri gañera, Loyola,
Miracruz ta...

Errekonozimentuak egin. Zubi ondoetan goardiak (paisanoak) ipiñi. Gabeko bat-batekorik egin etzizaten mikeleteak (sospresas nocturnas), al bazan prisionero bat edo beste egin ta...

3.—APALATEGI-ATAUNDARRA.

4.—TXAPIÑENeko INAZIO.

Txapiñena, eliz ondoan.

Gizon motz, sendo; argia da. 82 urte.

—Ni ere lenengotik Santa Kruz'ekin.

—¿Aritxulegin?

—Bai; Aritxulegi *erdikoan*. Au ikas-teko tokia.

—Ta armak atontzeko?

—Bordan; Goyenetxe aldera.

Lenengotik armak eramandakoak, bayonetak ez bait zuten zorrerik, ta muturrak ixtarrean miñ egiten ziguten. Orre-gatik, bayoneta muturrari arto mokotxa

jarri genion. Gero Errenteritik larruak eram-
man ta estalkiak egin genizkien.

Lenbizikora, Enparanekin.

Somorrostron (I) parapetoak zotalaz
egiñak, zotalak bata besteen gañera ipiñi
ta.

—Ormazko barrundik ¿lubakia?

—Gutxi.

—Norañokoak?

—Bularretaraño geyenaz. Su egiteko
belauniko. Kañoi balak aiden zeramazki-
guten.

*(Emen croquis edo irudi bat dago, San
Markos, Berrozpin (goy), Arkaitzaundi, Arri-
tokieta, Ametzagaña, Ataño ta Irazuene-go-
ya'kin.)*

(I) —Noiz jun ziñaten?

—Martxoan.

—Moriones'ekin burruka izanda-
koan ¿etziñaten an?

—Ez. Eldutako arratsalde bertan
granada sartu zitzaigun ta 14
mutil bota.

(San Markos *dion tokiaren azpian iru flecha daude, ta alaxe dio:*)

Trillo'renak (soldadu zarrak).

(Arrietokieta *jartzen duan tokiaren azpian bi flecha daude ta alaxe dio:*)

Mikeleteak.

(Irazuene-goya *jartzen duan tokiaren azpian, berriz, alaxe dio:*)

Emendik abiatu ziran mikeleteak musika joaz.

(Arkaitzaundi *itzaren ondoan a bat dago ta orrialdearen oñean alaxe dio:*)

Orain mendi aundi oni Txoritokieta di-yote, bañan zarrak diotenez (lau zarrak esan didate) beko txikia da Txoritoki; gañekoa berriz ARKAITZAUNDI, ta onen azpitik izaten dala *uxo-pasa* ta bekoan izaten dala eiztari tokia.

(Trillorenak (soldau xarrak) *esaten duan toikaren azpian b bat dago eta gero alaxe dio:*)

b: Azurmendi'tar Martin, bostgarren-go teniente izandakoak: "Gu Lasarten giñan. Goizean goiz, Oriamenditik granda bota ziguten, ta esan nun: "Gaur atakea nunerebait izango da, bañan ez emen". Eskuitik jo nai zutenean ezkerre-ra kiñu egiten zuten."

(Orriaren beko aldean croquis onek Alzako eliza ta pelota lekua markatzen ditu, ta alaxe dio:)

Eliza. Pelota lekua. Emen zegon len il-tokia, ta emen jarri zituzten beltzek kañoyak, karlistai begira.

—Erdiko mendian (Berrozpin) ez al zan atakerik izan?

—Ez; (an sartu izan balira, ezker eskuiko suaz kixkaliko zituzten).

Mikeleteak Txoritoki (txikira) errez io ziran, bañan aurreragoko sakonean (arritsua da oso) purrukatu zituzten. Astigarako bentara jexteko asmo ote zuten; bañan alperrik.

Karlista laugarrengoak omen ziran gogor egin zutenak.

FLOREAGAKO EUSTAKIO (1)

Ploreaan bizi da. (2).

Karlista bertsoak eta orrek dakizki.

1925'garreneko azkenekoetan.

Errege egunean Loyolan izan nun.

ARMA GORDEKETAN.

Amaika istillu ta gorabera izan genitun.

Matadero gañean genitula, zer edo zer jakin dutela. Gabez ixil ixilik artu ta Baldara

(1) Ikuñi: Aita Apalategui, C-10, 1-3: C-11-2, 108-110.

(2) Floreaga. (Plorea) Azkoitin dago.

LENENGO ERTEN ALDIAN.

Armak Argañen.

*Azpeiti Azkoitiko
boluntarioak
ez dira falso eta
gezur jarioak;
orain artu dituzte
eren medioak,
Izarraitzko mendira
dirade igoak.*

*Izarraitz'tik erten da (astelena zan)
lenengo martxean, (I)
istanteko jendea
Sasiolan an zan, (konbentu zarra)
estrapozua franko (estropiezos)
bitartean bazan,
erori gaberikan
ez dakit iñor zan.*

(1) "lenbiziko martxan" bear du, dudarik ga-
be.

Andikan Mutrikora

abiatu dira,

amarranen diruak (los diezmos de aquel
or ere badira; [verano, 10 o 12 mil
oriek artu eta [reales.)

egin degu jira,

onezkero frantzesez (alude a los nagusis
ikasiak dira. [que huyeron a
[Francia y volvie-
[ron con el indul-
[to de Amadeo.
(71).

Gero berriz bazkaldu

gendun Ondarruan,

ezeren aitzakirik,

jaunak, ez genduan;

arrantxera leyalak (ango emakumeak)

an izan genduan;

arrezkero kozinan

geuk egin genduan.

Igandea Araban

astelena Oñatin,

entregatzeko ordena

genduen armakin;

*pena eta tristura
bazan bai gurekin,
oek dira gure martxak
nai duenak jakin.*

*Txanton Amilibia
da gizon abilla,
ez dute arrapatu
ibillirik billa;
ondoren bazituen
gutxienaz milla,
damu duen guziya
izorra dedilla.*

BIGARREN ERTEN ALDIAN.

Apirillan 22'an?

Armak Txalintxoko bordetan.

Loyolan Batallón de Luchana. Teniente Coronel, Osta, gero Usurbillen Santa Kruz'ek il zuena.

Nagusi Txanton ta Orioko apaiza.

Madariyan lo.

Urrengo egunean etorri zitzaigun Luchana.

Santos Urrestilgo mikeletea ta aurretik.

Etxague baserrian arrapatu gure Angel Arenas, Azkoitiko zestogillea, zarra, lenagoko gudan lotu ta Donostiko gazteluan izandakoa.

Sua asi zanean igasi egin ta Mendaron alkartu zitzaigun.

Gu su egiteko jarri ginduzten ta esaten ari giñan: "Oraintxe aproba egin bearko diagu". Surtan ekin ta izugarritzko zalapartan asi ziran beltzak. Etziran aurre-raegi etorri, ez. Gu ortan berriak giñala bañan berak ere ez yayoegiak.

Jorraillaren 21?

Bigarren erten aldian, gure konpañi (2'garren)ko kapitana D. Alejandro Goenechea, apaiza. Berez mutrikoarra, Azkoitin koadjutore, (pelotarako ta a zein gizon bikaña zan.)

Irugarren konpañikoa ere beste apaiz bat: "Beasaingo Beltza".

Txalintxon armak artu. Urrategitik Elgoibarko San Mielera. Emen eman ziz-

kiguten jateko kutxareak. Onera etorri zitzaizkigun Plazentziko 30 (ogei ta amar)en bat mutil, arma ta guzti.

—Azpeitiarrekin ¿nun alkartu ziañaten?

—Ez nioke esango.

Elgoibartik berriz Azkarate gora.

Madariara lotara.

Luchana'ko (etsayak) Loyolatik guregana, Azkoiti gora, Emperrera'ño danak batean. Gero, erdiak bide zabalez ta beste erdiak mendi bidez.

Guretako bat Azkaratetik aldapa bera Lertxundira jetxi da. An zala, etsai mikeleteak etxea inguratu zuten. Gure lagun arrek ezin igas egin. Mikeleteak etxean sartutakoan galdetu diote zein ta nungoa zan. Berak an bertakoa zala. Etzioten noski siñisten, ta jantzi artean armarik ote zun eskuka asi zitzaizkioten (erregistro), ta *kutxarea* (S. Miel'en artutako kutxarea) arkitu diote. Orretan igarri zioten etzala etxe artakoa.

Gure buru ziranak zioten etzala Azkarate gogor egiteko toki egokia. Ezker es-

kui tontor goitsuak ta gu erdian galduak
giñan. Aurrera.

Etxague'n ¡alto! Orioko apaizak zio-
nez ura zan su egiteko leku egokia ta.
Etsayak bazetozten. Bala purrustada bat
bota genien. Asieran naspillatu egin ziran,
bañan gero su egiñaz erantzun ziguten, ta
guretako bati beatzen jo. Etzan beste odol
ixurtzerik izan.

Txantonek (1) andik alde egin bear za-
la ta Mutrikora abiatu giñan. Bai an sartu
ere. Etsayak gure atzetik bañan guk an-
kak ariñagoak, ta ez giñuten atxitu. Guk
Mutrikutik erten ta ayek sartu ta bertan
geratu ziran.

Berriatura. Egun batzuk ikasketan.

Durango - Mañarira - Oñati.

Urretxun armak utzi ta etxera.

(1) José Antonio Amilibia (Zarauz'tarra) gure
nagusi.

ARANTZATSU - ARAOZ (1)

4 de Julio 1932. A Arantzatsu a ejercicios

(Emen Arantzazu'ko mapa bat dago. Fonda Milicua jartzen duan tokian a bat dago ta gero alaxe dio:)

Orain, Milikuaren ostatu dana, izan zan Motxon'ena.

Santa Kruz Arantzatsura eldu zanean, leyoan zegon Motxon gizagaxoa, partidari begira. "Atoz" esan zion apaizak. Orrelako ta alako egin zenun zuk ta berrogei ta amar palo artu bearko dituzu".

Santo Kristo'n eman-erazi zizkion.
(Sindika'ko etxeakoandreak esan zizkidan)

(1) Ikusi: Aita Apalategui, C-10, 14-15.

Araotz ez da mendi zuloa. Aldapa zabal ta alayak, baserri ederrez beteak.

(Emen Araotz'ko irudi edo croquis bat dago. Aren izkiña baten a bat dago etxe bat siñalatur, ta gero alaxe dio:)

a: Uriarte, kontratista dirutsuaren etxe ederra. Etxe onen atzetik, urrean oso, izan zuten karlistak polbora-ola. Erre ta lertu zanetik ez da berritu.

—Nun izan zuten karlistak imprenta? Apaiz etxean?

—Ez; oraingo apaizetxea ez beintzat. Eliz ondoan. Emen dago orain auzo gela. Aldamenean “Escuela Nacional”.

IRU AZPEITIAK (1)

- 1) *Jose Mari Amube*, arotza Eleiz aurrean.
- 2) *N. Azpeitia*, zulogillea (enterradorea).
- 3) *Pedro Aranekoa*, arotza.

Pedrok: ni iru erten aldietan erten nintzan.

Jose Marik: ni irugarren erten aldian. Loyolan ari nintzan lanean. Antxe zegoan Luchana'ko batalloia, ta gu ayentzat lo tokiak eta atontzen.

Iturbe Oñazko baserriyetan zebillela ta artsalde batean nere lagunak ta nik:

(1) Ikusi: Aita Apalategui, C-II-1, 18-19, ta C-II-2, 233-235.

“Goazemak karlistetara”. “Bai”. Ta Loyolatik ertetzerakoan porteritik ofizialearen pistola artu ta Errekartetik gora jun giñan. Iturbe Aituben zegon.

Izan nintzan 1873 Ilbeltzan Azpeitian sartu giñanean.

Ostegun gizen egunean Azkoitian.

Bizkayan. Gernikan iya galduan.

Jorrailla: San Vicente de Arana'n.

May.-Eraul'en.

Orduñan.

Azpeitin; su Arauntzatic.

Garag.-Elgoibar ta

Aben. Bizkaira, ta atzera berriz.

1874. Estellan.

—Kalte aundia egin al zizuten etsayen kañoyak?

—Ez, oso gutxi. Ebi asko egin zuben ta etziran granadak lertzen.

San Juan egunean zuloan sartu ta antxe egon giñan iru egun ta iru gau. Gau batean Ambrus (Basterrika)k erten nai izan zun beste batzuekin. Iturbek jakin du ta ezpataz joka sartu erazi zien.

ERAUL'EN

Gure konpañia (2'garrena Enparane-kin) aurre aurrean jarri giñuzten, sako-
naren sarreran, arkaitz tartean. Tiro ez
egiteko, goikoak asi artean. Bazetozten
beltzak aldapa gora; guk tiro bakoitzaz
sei bota genezazkien, bañan geldirik. Etsa-
yak gora ta gora, ta gu oso inguratu gi-
ñuzten, ta galduak giñala ta *entregatu*
bear izan gendun; pusillak aboz bera ta
ipurdi gora genitula geratu giñan.

Orla, iskanbilla galanta ikusi gendun;
azkenean gure zaldizkoak sartu dira, jo
bat ta jo bestea; beltzak atzera, danak
pillan zijoazten; ara: emakumeak pro-
zesio atzetik bezela.

Guk orduan pusillak berriz zuzendu ta
aurrera ekin genion ta naparrak ta, bañon
lenago erdian sartu ta kañoyari lenbiziko
esku bota ziona Azpeitiko arrabaleko mu-
tilla, Argintxon'en semea (Pedro Lete).

AZPEITI AURREAN

Pentekostetako Paskoa bigarreanean,
Lasao'ko zubian ibaya igaro ta Arauntza

baserritik Odriara. Bitarten ariztegia zan.
Loma Azpeitian zan.

Gu Arauntza zearka gijoazela, Loma ta, zubi berritik irten dira. Enparangañen sartu ta pusil zuloak ormetan egiten asi ziran. Guk Eraulko kañoya genun ta Odriako zelayan jarri ta su egin genien. Bi konpañi ayen aurka egiteko. Urrestillara jun giñan. Garagarrillaren z'an.

ZULOGILLEA:

A zer berritsua dan. Badirudi egun guztian illekin berriketan ari dala.

—Ni irugarren erten aldian erten nitzan.

1872. Ni Olanda baserrian morroi nintzan. (Olanda Izarraitzen Zesto aldera.)

1873. Ara etorri ziran, Errege egunean, D. Agustin Inestrilla ta beste zazpi. Ni gaztetxo bai nintzan ta ibiltzen nintzan gora ta bera jangayetan ta. D. Agustiniñek egunez lo, gabeen biyok dama jokuan aritzen giñan. Aldi larriak izan ziran ere.

II egun. Andik Etxauztara, San Anton.

D. Agustin ta, Olandan zirala, Kalatzaz Uretan (Oñatz aldean). Batean mikelateak Azpeitian zirala. Bi konpañi Tolosatik. Ni ixilik begira. Goizeko 2'etan Odrietara. Illargi gaba zan.

Ni, lenengo, Agustin Txikiren partidand izan nintzan.

Elgoibar'en zeuden itxian (preso) karlista batzuk. Luchana batalloiko bost soldadu zaitzalle. Abek karlistak iritziz noski ta, itxiai iriki ta danak (amar) Agustiniengana joan dira.

Elgoibar'en sartu geranean, beltzak elizan zeuden; guk kanpotik su egiten genien. Soldadu ayetako batek su egin ta baita bere izenez deitzen zien barrengoai, lagunak bai ziran ta. Alako batean, arkupeetik su egiterakoan esan zien: "Enrique, allá va un confite" ta orrela. Bañan alako batean kanpantorretik tiratako balak buuruan jo ta antxe il zuten.

ORIO AURREAN.

Orion zegon voluntario konpañi bat. Azpeitiarrak ziran; buru, Zelaya medikua. Gu Orio aurrean.

Gabez deitu ziguten Asteasu aldera joateko. Gero berriz Zarateko bentan, ezetz, berriz atzera.

Zelayak jakin zun noski Orio aurrean iñor etzala ta jun-etorritxo bat egiteko asmoz, konpañia artu ta ibaya ontziz igaro. (Zubia Santa Kruzek puskatuta zegon.)

Bañan gu berriz gere lekura, Zelayak uste baño lenago etorri giñan ta jakin degu zer zebillen ta bai su egin ere.

Boluntarioak berriz ontzitxoetara ta guk baztarretatik su ta su. Txalupan danak mordoxkan zirala errez asmatzen genun.

Gero esan zutenez, il ta eritu ta ito emeretzi mutil, azpeitiarrak batzuk, beltzak. galdu omen ziran.

7'GARRENEAN.

Somorrostrora Carpienterrekin.

Santander aldean, Zumayarra gaxotu

ta an uzteko Carpentierrek: "Más vale que se pierda uno que cuatro."

Gero bera iztin zuloan zaldiekin sartu zanean "gastadores" asi zan... ta guk: "Más vale que se..."

¿Ontongoan?

Otsaillan. Moriones sartu zanean 8'garrengoak bean zeuden.

Su egin ere.

Gu gañean.

Illuntzerako erreleboa (aldaketa). Gu bera. Gau guztian lanean aritu giñan burni bide ondoan. Gero esan ziguten ura leku txarra zala ta...

Epaillan.

(Emen irudi edo croquis bat Moruekos, Manzanar, Portillo ta Vista de las Cortes'kin.)

Monte Ramos'ko kañoyak etziguten pakean uzten ta gabez egin bear izaten genitun.

Berrogei (ta amar?) egun mendian lo (txabolak).

Il atzeneko burruketan, San Pedro Abandon.

Apirilla.

Muñekaz'etan. Velasco'ren erretiradangu aurrean.

Gero artillerira aldatu nintzan.

A Z K O I T I A R B A T (I)

(*Patxi Juaristi*. Semea, Comillas'ko gaxo-zaya.)

I Zelearnko gizona. Ala esan oi diote. Epelderan olan lanean aritzen da.

Semea Konpañian H. Juaristi, Comillas-ko gaxo zaya.

A m b r u s (Basterrika zarrenarekin (Emeterio, Manuel (goi), Felipe) lendabizi. "Gaur ofizio berriya probatu bear diagu..."

II Ambrus (Ambrosio Basterrika) lau anai serralariak. Beren etxe zarra Azkoi-

(I). Ikusi: Aita Apalategui, C-II-I, 18-19, ta C-II-2, 233-235.

tian. Antxe sartu ziran Santa Kruzen mutillak Leturiondoren etxe aundian zeuden karabineroei su egiteko.

Partidan makill aundiekin ibiltzen giñan. Ederki, batera ta bestera. Alako batean esan zigun: "Gaur ofizio berria es-trañatu bear degu. Utzi makillak ta goa-zen beltzai su egitera."

Jakin zuen nazionalak, D. Hilarion Orbea (azpeitiarra) nagusi zutela, Elgoibar aldera jutekoak zirala. Jarri giñan, bada, zai Elgoibarko bide gañean. An esan ziguten: "Bergara aldera artu dute." Aldatu giñan, bada, ta Alzibar parean arbola tartean...: "Puego, muchachos". Beltzak danak guri begira geratu ziran. Asi gaiak batak eta besteak.

Gu ofizio berrian giñala, bañan bai ayek ere. Eibartar ezkon berri bat il geniyon.

III Gu Somorrostron ez giñan izan, bañan andik mutillak etorrita laster Napparroara bidali ginduzten.

Lorkan ta, egon giñan iya illabete. Ederki jan, ta ardoa ugari.

Bitartean guretzat parapetoak egiten asi ziran.

Noizbait ere beltzak etorri ziran. Salla aundia. Baztar guztiak beterik, aurrera ta aurrera...

Gu parapetuetara laxterka laxterka jun ta denboraz sartu giñan. Lo egiteko olibo adarrekin txaoletzat oi egin.

An geundela ta beltzak aurrean, esan zigun Iturbek: "Begira, mutillak; gerra gerra da gero. Kontuz ibilli bakoitza bere lekuan. Iñork alde egiten badu ezpata onekintxe ilko diat."

IV Estellan zauritu zuten.

Zurrukiain aurrean gure parapetua. Gañean arkaitz aundi bat. Arren atzean konpañi bat justu ezkutatu zeikean. An gordeta egon oi giñan. An zegoan kantina.

Ostiralean (bigarren egunean) surtan aritu giñan. Illuntzerakoan geratu.

Beltzak aurrean. Lista entzuten geniyogun: "Pérez... Sánchez..."

Urrengo egunean (larunbata) goizean goiz alboko errira nijoan ardo billa. Iturbe billatu nuen. "Nora ua?" "Ardo billa."

“Ua orrera, etxeak irikita ta ardoa nai aña arkituko dek. “Etxe bat aurren. Atea arkuzkoa granada batek iriki zion. Barreren upelak irikita, ardoa ibaira zijoan. Mutil azkoitiar bat dantzan bere braka gorriekin.

Ardoa artu ta banator berriz gure arkaitz atzera. Surtan gogor ari ziran.

Iruretako ortan esan dute parapetotik amalau gizon jexteko. Gure konpañiko lenengo brigadak jetxi bear zuen.

Bagenduen guk sarjentoa, arabatarra, erdalduna, mikeletietatik Azpeitiyan aldatua. Txiki bat zan, bizi bizia. Arek esan zuen bera jetxiko zala. Guk, bere mendekoak, gogo aundirik gabe ere, ixil ixilik juan bear.

Arkaitzetik parapetora maztiya zan ageri ageriyen. Abiatu giñan laxterka laxterka goitik bera, balak nun nai zis zas zebiltzan. Nere aurre zijoan Arretxeko azkoitiarra zanja zuloaren ertzan zegon barrura sartzeko. Ni balak anka ezurrian jo ninduanean, deadar egin ta Arretxekoak atzera begiratuaz esan zidan: “¿Jo al aute?” Bada orduantxe bertan berari leptik sartu sayetseraño. Ala ere biak

zanja barrura gure burua murgill bota ta bat besteen ondoren geratu giñan.

Arretxekoak deadar egiten zuen, ta nik esaten niyon: "Motell, ago ixilik; emen il bear badiagu, ementxe ilko gaituk, bañon ago ixilik."

Nik nere zauria buztinëkin estali nai bañan eskua nekatu ta berriz ere odola bazijoan. Ebi asko egin zuen ta ura goiko zanja aldetik gu geuden beko aldera zetorren, ta goiko aldean zauritutakoen odolekin gorriturik zetorren. Buztin gorri orrekin asi nintzan, bada, nere odola geratu nayian. "Nik emen il bearko diat." Sarjento bat antxe urrean su egiten ta arretxek zapi batekin lotu zidan anka.

Noizbait ere illundu zan.

Gabez artu ginduzten ta Hospitalera eraman. Lenbiziko senda aldia an egin zidaten.

Monja bat igaro, euskalduna zirudiyen ta baita izan ere. Ari galde niyon zenbat gaxo giñan ta "berreunen bat" esan zidan.

Andik egun batzuetara Azkoitiko kappillaua, D. Miguel Beloki, 14 kotxerekin gure billa, ta Loyolara etorri giñan gipuz-

koarrak. Ni ta Arretzekoa kotxe batean.

Emen ill zan gizagaxua ta S. Luis jantziz eraman zuten.

V. Loyolan oraindik erdi sendatua nintzala, lertu zan Malkorra'ko polbora fabrika (6 Octubre 1874).

Sendatu ta gero injenioetara aldatu nintzan. Errazio bat eta erdi egunero.

† 15 Oct. 1923 (Azkoitia)

SOR SOTERA (I)

Azkoiti'ko Miserikordiyen. Emen, Loyolan, gudatean egondua.

Arretzek esan dizkit Hospital Militar'eko gauz asko.

Junio (1922) 1. Gaur izan naiz Azkoitiko Miserikordian ta esan dirate Sor Sotera ez dagola, beko gelara jesteko.

(Emen erderaz adierazten da erituak nuna nola zeuden Loyolako etxe barrenean. Gero:)

IXTILLUAK

Oyartzunara joan giñanean (San Martiñetan) enituak an utzi genitun. Txakurtxulo bakarrik ekarri.

(1) Ikusi: Aita Apalategui, C-11-1, 20-23, 50-51.

Batean zakurra zaunkaka ta katua miauka. Begira batetik ta bestetik ta ezer arkitzen ez. Hermanuari deitu; uts. Ta zer? Mutil batek zaunk ta beste batek miau. Oyartzuarra zan; ixtar goyan zauria; zulo batetik ura sartu ta ixtarreko amar zuloetatik irtetzen zitzayon. Sendatu egin zan.

Igande ta jai egunetan kanpoko asko etortzen ziran. Baita neska gazteak ere... an ibiltzen giñan, danai kontu artu eziñik.

A Z K O I T I A R B I (I)

Jorraillaren 9'an 1922.

Etxaniz'tar Bixente, alprajatagille nagusia.

Norde'ko Eujenio, alprajatagille langillea.

BIXENTEK:

—Zu zeñekin erten ziñan?

—Ni Ambrus'ekin.

—Zenbat lagun ziñaten?

—Ogei.

—Ta zer egiten zenuten?

—Ibilli batera ta bestera. Gero, lau partidaekin konpañia egin ziguten. Am-

(1) Ikusi: Aita Apalategui, C-11-1, 38-41.

brus, kapitan,..... teniente. Iturbek sartu zizkigun opiziale Sodupe ta Abaria (sakristaben semea).

—Uniformea?

—Kolare arrea; galtzak franja gorriekin. Ofizialeak bakarrik braka gorri ta kapote urdiña.

EUGENIO MORDE'KOAK:

—Zenbat aldiz erten ziñan?

—Ni iru erten aldietan. Lendabizi 70'an Azpeitiarrekin batean. Andik bi urtera berriz (Alkorta Carlos edo Uriekin?). Mendaro aldera jo genduen ta Oñatin armak entregatu. (Confundió las dos salidas.)

—Seguran izan al ziñan Errekondo'rekin?

—Ez.

—Ta Mañariko atakean?

—Ez ta ere. Irugarren aldian Alkortaren partidari ibilli ta baita beraren asistente izan ere.

—Batalloyak egin ziranean nun sartu ziñan?

—Lendabizi 5'garrenean. Ta gero r'koan.

—Etziñan beaz Santa Kruzekin zalapartan izan?

—Ez.

SOMORROSTRON.

—Basorik ba al zan?

—Ez; gurbitzak bakarrik.

—Nun lo egiten zenuten orrenbeste mutillek?

—Miña gizonak egindako txabola batzuek baziran, ta gañera geronek adar ta ote ta zotalez egin genitugun txabolak; urik etzan sartzen.

Ni ta beste batzuek ikazkin ibilliak txabola ederra egin genduen. Amazazpi gizonek lo egiteko. Kapitana, teniente bat ta amabost mutil geyo.

(Día 24 de Marzo) Orlako txabola batean beltzak botatako granada sartu ta amar mutil il ta eritu zizkigun.

MARTXOAREN 25'an.

Itxasok etsayak 20 metrora etorri artean ez su egiteko agindu zuen. Granadak zulatzen zizikiguten parapetoak. Bazetozten. Donostiar batzuk asi ziran: "Atozte

onera, etsai taldi gogorrena onera zeto-
rrek eta.”

An zebillen Alkorta (kapitan) gora ta
bera lubakitik kanpora dana agirian. Esa-
ten genion: “Motel, ago geldik ta sartu
emen...” An ill zuten.

Diotenez, lenengo uts egin zuena, len-
biziko konpañia izan zan. Meliton (Zata-
rain)ek alegiñak egingo zitun bañan alpe-
rrik.

(Itxaso perdió el empleo, siendo subs-
tituído por Emparan. D. Pacífico Grande
(de Somorrostro) atenúa la culpabilidad
de los guipuzcoanos por la circunstancia
de haber puesto los liberales durante la
noche anterior y sigilosamente la artille-
ría muy cerca (en el Cuadro) tanto que
el mismo jefe (Itxaso) hubo de decir “aquí
no se puede parar”.

(Creo que era Arenillas que enfilaba
la trinchera carlista.)

Beste konpañiak alde egin zuenean,
gu asi giñan: “Besteak jun dituk ta guk
emen egon bear al diagu? Goazemak gu
ere.”

H. TOMAS LIZARRALDE (1)

—¿Zeñekin ibilli ziñan karlistetan?

—Ni? Agustin Txikiekin (Atistrain, Debatarra).

Amasei urte nituen. 1873'gko Martxoa zan.

—Etziñan bada ibilli Santa Kruz'ekin?

—Begira: izan zan bolada bat, Santa Kruz'ek probintziako partida guztiak bere mendean izan zituena. Ta gu ere apai-zaren mendean izan giñan. Agustin berez Lizarragaren aldekoa zan. Gure artean Zabalo, gero kapitan izan zana, ori genduen Santa Kruzen aldekoa.

Mondragon'en su egin, Arantzazun (an il ziguten Urrestildar bat), Ernion.

(1) Ikusi: Aita Apalategui: C-II-1, 46 ta abar, ta C-II-2, 90-95.

Lenengo agintari, erten berrian, Xanjuan, ttattar beltz bat, guda gizon izandakoa. Euskeraz zer edo zer (gutxi) zekien. Araoz'en —50'en bat mutil izango giñan—, asi zan: “Convienes saber la ordenanza militar...” Ekin zion erderaz irakurtzen. Gero euskeraz esan zigun: “Kaboari paltatzen dionari, paloak. Sarjentoari paltatzen dionari, lau tiro... Niri paltatzen diranari... ez dakit zer egingo diongun.”

Guk parrari ekin genion. Etzizayon atsegin izan.

Laster alde egin zun ta Agustin Txikiren mendean sartu giñan.

Oñatin, mikelete opizialea Sanchez, ataundarra, (euskalduna ere). “Ondraduegia zan balientia izateko.”

Karlista partida —gu ez beste bat— bazan.

Zabalo arotzarena.

Bazan Oñatin Fernando bat. Onek Sanchezi esan zion Zabaloren aita nun zan, ta mikeleteak etxera joan ta lotu zuten.

Geroztik, Fernando Arayara tella egin-tzara zijoala, Zabalok arrapatu du ta baita makilkada talde ederra eman ere. Utzi zutenean omen zion: "Gizona orrela uzteko obe zenuten il." "¿Il nai dek?" esan zion Gerosoko kaiku batek ta tiro bat jota an utzi zuen.

Oker au sarjento izan genun. Oso bahlentia bañan diru zalea ere. Errazioak eskatu ta "aguro gero." "Gizon, orren aguro ezin genezake." "Aguro ezin badezute, ni larri naiz, ta dirutan eman bearko." Orrela lapurketan ari zan. Guda legez asi zanean, karlistak berak il zuten.

TOLOSA AURREAN.

Partidatik 4'garren batalloyian sartu.

Santa Kruz etorri zanean, Alkizan geunden. Zabalo, gure kapitana, apaizarekin jun zan.

Mutillak geldirik egon giñan, bañan bururik gabe geundela ta sakabanatu ginduzten. Ni 8'garrenera.

Zabalo, kastiguz, soldado egon zan bolara baten, guardirik eta egiñaz.

ERNIOKOA.

—S^a Pau Bidanira jun zanean?

Gu, 4'garrenekoak, Ernioko arkaitzetan. Bazetozten zabal zabal. Mikeleteak Lojendiorekin aurretik. Su egin genien. Lojendiok berak esan zidan urte askoz geroago: "Gogor egin giñuzuten; zaldi gañetik jetxi bear izan nun." Guk bear bezelako agintaririk ez genun izan. Zabal, gure kapitanak, alde egin zigun, Paulinok ere etzun...

—Somorrostron izan al ziñan?

—Bai, bañan denbora gutxi. Nere aita ara jun ta asistente Ararako ekarri ninduen Bergarara.

Portugalete aldean jarri ginduzten kastillano ta napar tartean.

An il zan Azpiazu ((miñez)) ta arren ordez Bikuña (Errexil'ko sekretayua).

Komandante, Monserrat, irundarra.

Kapitana, Guenetxea, gizon txit ona. Zituen diruak guretzako izaten ziran. Eskola gutzi zuben ta neronek egiten niozkan listak eta kontuak. Mutillik ikusten bazuen neskekin eskuka ta, aguro gastigua botatzen zion.

Santa Kruzterra izana zan, ta orregatik etzuten beñere mallaz goratu.

Somorrostrotik mutillak Probintzira etorri ziranean, etzekarten kristau itxurarik ere. Jantziak danak urratu ta musuak ere lur koloria.

Gauza gogorak ikusi bear izan zituzten.

OCHAVO.

Partidayoa. Gizon gaiztoa zan. Plazenzi'tarra, Mikelete izandakoa. Mikeleteen diruekin igas egin ta etorri zan gure artera. Donostiko inguruetan plazara zi-joazten ziran neskatxai...

GETARI AURREAN.

Guardiyak oso erri ondoan egiten gemitun.

Oso kontuz ibilli bear. Orma atzeetan ezkutun ta. Beltzak guardiya kanpaitorrean. Gu goitik bera ikusten. Alako batean kanpaitorreko guardiari tiro egiteko gogo eman zidan.

Enuen iñondik ikusten (berak bai ni, ta nere asmoak igarriaz jarri zan bada neri su egiteko.)

Nere artean: nere tiroak gizona jotzen ezpadik, kanpaya beintzat jo dezala.

¡¡Pum!! Artantxe bertan besteak ere tira zidan. Ni makurtuta egon arren ederki ikusten ninduan nunbait.

Ta eskuiko bizkarrean nuen *hombre-ran* jo. Hombrera berriz aztindu-ta zanean, matrallean jo ninduan. Uste nuen balak jo ninduala. Nik bereala eskua matrallera odolik ote nuan. Begira eskuari ta garbi, odolik gabe. Baita berriz ere. Ezer etzanean pozik.

Bereala lagunak: “¿Zer izan dek?”
Ta nik... gezur txiki bat esan bear.

MAYATZAN, ERNANIKO ZALAPARTAN.

Artean oraindik Bergaran nintzan. Ni bezela beste asko ere. Errekondok asistente bi. Paulino Serrak bat ta abar.

An zegon bederatzi-garreneko konpañi bat. Abek ezkonduak ziran ta alargun semeak eta orla.

Bergarara aldatu nintzanean antxe zegoan.

Bederatzigarrenaren konpañi bat (D^a Margaritaren batalloya esan oi zioten) Comandante del 9.^o D. Pío Barrenechea. Su hijo Agustín, cocinero del Rey (eran siete los empleados en la cocina). Konpañía fija.

—Zertarako zegon?

Bergaran ziran guda-auzitegiak. Auzitegi buru Errekondo, gizon aundi, bizarrira matralletan ta ezpain gañean, okotza garbi. Auzitegi ta lotuen kontu zegon konpañi ura. Ezkonduak geyenak (1872'garrereko Apirillaren 21 ezkeroko ezkonduak), batzuek gaztetxoak, anai zarragoak guda mutil zituztelako, alargun umeak,...

Gero bi konpañi izan ziran.

Noizbait Gatzaga gañera eraman zituzten, baita *Terzioak* ere. Abek guztiak ezkonduak, guda jantzirik etzuten.

Gatzagara marmari zijoazten: "Ea zertarako ara joan erazi ziezten... familia zutela... andik etsayak eraso egiten bazuten igas egingo zutela" ta abar.

BERRIZ ERE ZORTZIGARRENERA.

Alako batean etorri zitzaigun brigadier Fortun zar bat eta ainbeste mutil alperrik Bergaran ikusirik "orla ezin zeikiela" asizan. Gazte danak batutzeko agindu ta bakoitzak bere batalloira joan bearko genduela esan zigun. Gure ordez asistente be-deratzikoak geratuko zirala. Mugertza partida nagusiak artu gindun ta Zumarragan ta Tolosan ta gu bezela zeudenak bildu ta guda lanetara Donosti aldera ixil ixilik. Ni 8'garrenera biurtu. 16'ren bat mutil.

IRUNGO AURREAN SAN MARTIÑETAN.

An giñan. Lenengo egunean kañoi sutunpa entzuterakoan, danok deadar aundi bat egin genuan. Musika ere soñu jokata. Ez giñan sartu.

Urrengo guda egunetan Astigarrakobenta gañean.

ERRENTERI AURREAN.

Goenetxea gure kapitanak anai bat zun mikeleteetan. Batean ala esan zigun:

“Biar Errenterin pelota partidoa omen da..., zer edo zer egingo al diagu, erriko guztiak plazan izango dituk eta.”

Partidoa asterakoan sarjentoari deitu ziok, berak (Goenetxeak) braka gorriak kendu (gorriak urrutitik ikusten bait dirata), gureak (orreak) jantzi ta emezortziren bat mutil goazen ixil ixilik. Arkaldian ezkaturik aurrera polliki polliki. Erri gainean berreun metro izango giñan; lurrean etzanda. Plazako zarata eta deadarrak entzunik. Alako batean kapitanak oju egin ta su egin genun mutil danok. Bereala laxterka arto tartetik alde egin genun. Altzako kañoi aundiak su egin du, kea ikusi aldera bañan etzigun kalterik egin izan.

—Ta zuek giñor jo al zenuten?

—Bai; gure kapitanaren anaya, mikelatea, iztarrean.

URNIETAN KONTZEZIYO AURREAN.

Asieran Arrikarten giñan, konpañi bi. Su egin genun kartutxorik gabe geratu arte. Lasartetik mandoak etzetoztela ta...

—¿Lubakirik?

—Bai. ((Burruka eguna bañon lenagotik lubakiak egin genitun.

—¿Baserriko gizonak egin al zituzten?))

Andik Azkortako ermita bera aldatu. An giñan ere, lubakian egun guztian surtan. Muturrak beltz beltz egin ta. Gure pusillak kea atzera botatzen zuen. Illunabarrean “aurrera” ta bayonetak pusillen muturrean genitula ekin. Soldadu xarrak oso gaztetxoak. Umeak ziruditen.

TXULO'REN PARTIDA BERRIA.

Txulo (Alberdi bere abizena) Getaria-rra da. 8'garreneko kapitan zan.

Partidak batalloyetan sartu erazi ta orain berriz Txulok partida berria bearzuela. Nai zituen mutillak artzeko baime-na eman ziyoen. Zazpigarrena ta zortzigarrena formatuta asi zan: “I, ator nerekin,... i ere bai...” ta orla; 7'ko 40 mutil artu ta 8'ko 15.

Nere berri bazuen noski; norbaitek esango zion ni berak nai zuenerako egokia nintzala edo...

Partida berria zertarako zan ez gene-
kigun, bañan guda mutillak agintariai ez
dio ezetz esaten ta an sartu giñan.

Batera ta bestera gebiltzan ederki.
Goardirik egin bear ez ta.

Zeballos jeneralak Andoañen billatu
ta ezan zion;

“Alberdi, ¿cuántos chicos tienes?”

—“55” Txulok.

—“Puedes tomar otros 15.”

Andoañen artu zituen.

Orrela bada, Zarauzen Zubigañen gi-
ñan, Orio aldera aldapa asten danean,
illunabar batean, komandante bat bere
ayudantearekin. Euskalduna zan. Esan
zigun: “Ikusten dezute or aurrean Geta-
riko San Anton gaztelua? Amairu artillero
besterik ez daude barruan. Gabez itxas
ontzietan jun ta Txulok badakizki ederki
orko bide txeorrak ta errez sartuko zera-
te goiko etxean. Andik seña egin ta gu
sartuko gera Getarian. Ez bildurrik izan:
itxasoa barea zio. Iñork igarri gabe go-
yan zerate... Nere ayudante au zuekin
joango dek.”

Gu izutu egin giñan. “Or il bear diagu danak” ari giñan. Itxas gizonak ere gu San Antongo arkaitzetara gabez eramateko uzkur ziran.

Orla giñala, esan geniogun komandanteari: “Zu gurekin etortzen bazera, joango gera; bestela ez.”

Berak, Getarin sartu bear zuela, gu gora iyo ta gero.

Guk berriz, ezetz; berarekin joango giñala; bestela ezetz.

Etzuen gurekin etorri nai izan ta gu gogorrean geratu. Guretakoren batek tiroa bota zun lurrera Txulo izutzeagatik. Gero beste batek. Nik ere bota nun.

Txulok esan zigun: “Mesede bat eskatzen dizuet: ez dezazutela esan nik ez joateko esan dizuenik”.

Guk ez genduela esango; gezurra litzakela ta...

Orain alako kastiguren bat etorriko zaigu...

Urrengo egun batean, Getari aurrean genitun zentinelai esaten omen zieten etsayak: “¿Cómo no han venido los carcas?”

NOLA ERITU NINDUTEN.

1875'garreneko Ilbeltza zan.

Lomak ikusi zuen Urnietatik ezin sartu zeikiela ta itxas bazterretik sayo egin nai zuen, Azpeitiko gure guda olak purrukakutuko ote zituen.

Bera Donostitik Orio aldera, ta baita Zarauz'araño eldu ere; ta beste salla bat itxasoz Getarira bidali. Abek bat batean Garate jo ta Meagetatik ere gureak bota ta mikelete konpañia Oikiara jetxi zan. An il gendun Sastria mikeletetako kapitana. Donostiarra ote zan nago.

Donostitik Oikiara utsunik gabeko errenkada zeukan Lomak.

Gureak Indamendi'n (Iturberekin) eta Egañarekin Ayan.

Oraingoan ere igarri zion Lomak ez aurrerago jun eta an ere luzaro ezin egongo zala. Ta "atzero". Orion ta ziranak Usurbiltik Donostira, ta Meaga gañekoak ontzitxoetara. Beltzak atzero ta gu aurrera. Zazpigarrengoak (Folguera nagusi) Oikiña gora. Gu, Txuloren partidakoak, aurrean jartzeko. Orduan esan genduan: "Au izango dek itxogon genun gastuia".

Ekin gora. Meaga gañetik beltzak ontzi txikietan aundietara sartzeko nola ari ziran begira geunden. Gure Txulok bazuen nunbait zer edo zer egiteko gogoia ta "aurrera" esan zigun. Jetxi giñan aldapa be-
ra. Gaztañ arbolaz betea zegon aldapa. Beyan, bide zabal gañean, arkaitz batzuek. An geratu. Gure azpian, urrian oso, beltz batalloi bat, ontzi zai. Gu arri tartetik itxasokoai su egiten asi giñan ta bereala Getariko burnizko atetik erten ziran korneta joka ta guri su egiten ekin zioten. Akerregin zeuden gureak atzera, bañan guk ikusi ez ta gure gañean jarri ziran. "Entregaos, cochinos" ziguten. Antze bazebillen bala ugari arbol adarrak nun nai joka. Gu, aguro gero, aldapa gora. Baita bizkarreko morralak azkatu ta bota ere. Neri korapilloa egin zitzaidan, bañan gora nijoan alegin guztiaz. Beltz salla bat gure ezkerretik (gora gijoazela eskuitik) gu inguratu nayeian. Iturbek goitik su egin zien, geratu erazteko.

—Etzan zuetako iñor il?

—Iñor ere. Amalau mutil zauri txiki-
rekin gertatu, bañan danak gora. Neri an-
ka jo ta ezin ibilli ((nintzala bakarrik))

geratu nintzan gaztañ tarteko zulo orbelez betetako batean. Beltzak ibilli ziran nere inguruan bañan gaba zan ta ez ikusi.

An negoala nere bizitz guztiko gaiztakeriak gogoratzen zitzaizkidan, Jainkoari barkamena eskatu, Ama Birjiñari otoitz egin... Naigaberik aundiena auxe zan: orain emen ilko nak ta ez dute nere gurasoak jakingo nun il naizen. Auxe zan daretan mingarriena.

Noizbait ere inguruan norrebait zebillela entzun nuen. ¿Beltzak ote dira berriz ere? Ni ixilik. Nere aldera zetozten. Entzun nien: "Ementxe zan bada, gutxi gora bera." Orretan igarri nien nereak zirala ta deadar egin nuen. "Emen dek" esan zuten. Etorri dira ta batek poxpol bat pixtu du. Bereala beltzaren tiroak entzun ziran. Etziran andik urruti. "Itzali zak". Itzali zuen. Berriz ere tiro salla bat. Gu ixilik. Etzuten geyago bota. Lagun batek bizkarrean artu ta aldapa gora eraman ninduen. Goyan Iturbek: "Ba al dakar-zute" "Bai" "Ta nola dator?" "Ondo. Ankean jo dute." "Ez bildurrik izan" esan zidan Iturbe berak. "Ankako zauriagatik ez dek iñor iltzen ta. Ya, artu." Ta ezpa-

ñetan zatoaren muturra ipiñi zidan:
“Eran”.

Bereala esku eskallera batean jarri eta lotu egin ninduten ta aldapa bera Oikiyara.

An, berriz, emakumeak galdeka:
“Zein dakarte? Gaztetxo bat. Bai? Ta bai. A zer mutil polita. ¡Lastima!” Monjak sendatu ninduten ta urrengo egunean Loyolara gurdi batean.

—Gurdi bakoitzean bi edo joango zinateñaten?

—Ez, bat bakarra. Koltxoi gañean ederki ederki...

MOTRIKON.

Erdi sendaturik, udaran, Motrikora itxas bañoak artzera eramán giñuzten. Berrogeiren bat izango giñan, mutil ta opi-ziale.

An arkitu genitun *Batallón Sagrado de Jefes y Oficiales*. Kastillatarrak guztiak.

Berrogei ta amar edo. Zarrak danak. Lenagoko gudakoak. Berriz karlistekin

ibilli nai edo beren errietatik gobernuak bota zituztela ta etorri egin bear zuten.

Etzan ainbeste opizialentzat batalloyetan tokirik eta salla batean bildu zituzten. Baita pusillak eman ere, mutillak balira bezela.

Egunero jangai bikoia ematen zieten ta orrekin bizi ziran.

—Ba al zuten mutil lagun (asistente)ik?

—Ez; geyenak emaztea edo alaba berekin zuten ta familian bizi ziran.

Aste egunetan lebita xarrakin ta... alprajetak oñetan.

Igandetan guda jantziz, galoi ta... orduan guk eskua jaso ta agur egin bear. Atsegin zitzayen.

GUD-ONTZIAK AURREAN.

Noizean bein agertzen zitzaizkigun eta ez gero onik egiteko asmoz. Izbazterreko erriai su egiten zuten ta batzuetan granda aundiak bota ere.

Asmo oyetzaz zetoztenian bandera gorria ekartzen zuten.

Erriko komandante de armas (kaballeriko T. C.)ek oyu egin erazten zuen etsaya zetorrela esanaz ta erritarrak alako ta orlako tokitara biltzeko. Menditxo atzean ta bagenikin granadak kalterik nun egin etzezaketen.

Gu, guda mutillak, izkillurik gabe, udal-etxe aurrean.

—Zertarako?

—Etixerik erretzen bazan ere itzaltzeko ta.

Guk Alkolea gañean kañoitxo bi genitun. Teniente bat ta zazpiren bat mutil (kastillanoak) zaitzalle.

“Bazetorrek” ¡Bruuum! Txistu egiñaz erri gañetik bazeak granada ¡bruum! urrutira. “Lertu dek mendian.”

Bruum berriz ere. Txistu egin gure buru gañetik ta... noizbait ere ixil... “Ez dek lertu. Osorik geratu dek nun ere bait.”

Gutxitan jotzen zuten errian. Ontziak bere alde batekoak bota ta beste aldeko kañoiak erakusten zizkigun (biratu-ta). ¡Bruuum! berriz ere.

Gure kañoitxoak beti erantzuten ziyo-
ten: pim - tim. Umeen estulak ematen
zuten; ontzikoak berriz berrogei urteko
gizonarenak.

Bañan gure kañoitxo oetako batek il-
zuen Sz. Barkaiztegi, guda-nagusia.

T O L O S A

D. JUAN JOSE RECONDO (I)

Fábrica de curtidos

(hijo y coltº. del coronel Recondo)

- 25 Dc. 1922. - Le expongo mis proyectos.
Le suplico una noticia biográfica de su padre.
- 29 Dc. - Ofrece venir a tratar de palabra.
- 30 Dc. - Agradecido.
- 2 Enero 1923. - Llega por la tarde.
- 3 Enero. - Gran conferencia de 2 a 7,30.
- 6 Febrero - Carta de D. J. J. R. anunciando ha recogido varias armas.
Gracias.
- 2 Abril. - En Tolosa gran conferencia después de comer.
¡Ojo! En la lista del 8.º me faltan los q. están a los dos lados del cura.

(I) Ikusi: Aita Apalategui, C-II-I, 62 ta abar.

Escribo a R. y F. (libro de S. F. J.).
Partidarios ((Mendizabal y)) Atistrain.
Entre las notas que tomé en su casa me
encuentro con el nombre de Gervasio
Aramburu que no recuerdo...

El comienzo de las aventuras de Recondo
(año 1870) se refiere en el cartapacio general
1870 y 1872.

Prantzian sartu ta ango gobernuak
etzigun Españiko inguruetan egoten uz-
ten, ta Tours'eraño jun giñan. Andik Pa-
ris'ara. Aita semeak ta Ugarte.

Prantzi'tik bota ginduzten ta Strasbur-
go (Alemanira).

Ango Obispo Jaunak izugarritzko agur
ona egin zigun. Artsaldeko seyetan juteko.
Alako bazkari ederra. Diru puxka bat ere
bai.

Andik Ginebra'ra jo genduen.

An, erriz kanpoan, bizi zan Doña Mar-
garita. Arrekin zegon D. Tirso Olazabal.

Lion'dik Toulouse'ra. An billatu gen-
duan D. Tiburcio Rodriguez apaiza, Bur-
gos'ko Penitenciario. Au Cabrera'ren al-
dekoa zan ta nere aita ta Ugarte'ri papera
firmatu erazi zion, Cabrera'ri etortzeko
esanaz.

Nere aitak beti izan zun damu papel ura izenperatuaz, D. Carlos'en etxean Cabrera'ren aldekoak beti gaizketurik izan ziran ta.

Andik *Comite Legitimista*'k pasapor-teak gure cedula izun Ibarran egindakoe-kin atera ta España inguruetera Conde Landes'en etxean.

Berriz ere barruratzeko ta Nantes'era sartu erazi. Igas egin ta Bayona aldera. Orduan ikasi nun larrugilletza.

Urte berrietan Peña Platan zala Dorronsoro, ta an sartu. Lenbiziko konpañian izan nintzan. Mendizabal nagusi.

Zegamatik bidali nindun Dorronsorok ingurueterako jauntxoai contr. papera ematera.

Iru konpañiak sakabanatu ziranean gu zortzigarren batalloira. Mutil geyenak betarrak. Urza nagusi.

Zarauz'en Bolaños koronelak erakutsi guda legea. Orentzaron Azkoitian.

Egoarri egunean Elgoibar'en. Bizkai aldera.

Otsaillaren 24'an Somorrostro'ko zubi aurrean giñan. *Burnibide pean*. Parape- totzat burnibide abeak bata besteren gain- ka.

Beltzaren kañoi pean giñala ta gora aldatu giñan. An lubaki ederra egin ere. Baita bide ezkutu, erituak eta ateratzeko. Lenbizikoari utzi bear izan genion.

Otsailaren 25'ean naparrari lagundu genion. Larri zirala ta Cortes aldean, Be- rriz brigadier zala; Abanto aldera Alvarez (itxas gizona izana).

Epaillaren 25, 26 ta 27'garrenak.

Egun gogorrak izan ziran. Abanton gi- ñan. Gure lubakia eleizaren *pegante*. Egu- nez surtan ari ta illuntzerakoan lo-tokira gijoazela, Alvarez brigadierrak, eliz pre- till gañean zutik jarrita, deadar egin zion Enparan'i: "Emparan, al pasar por ese sitio despejado corran". Bai egin ere. Na- parrak an gañean zeuden ta korrika iku- si giñuztenean par egin ziguten. Radica'k berak gure mutil bati kartutxera artu zion ea betea edo utsik zeraman.

Emparan komandantea oso aserretu. Radica'ri izugarriak esan zizkion. Dorre-

garay jeneralangana jun ta gogor ari izan zan.

Urrengo egunean berriz surtan. "Orain ikusiko ditek naparrak eta danak izutiak gaituken edo ez." Ta lau konpañiri bayonetan jarri erazi eta "aurrera" esanaz, lubakitik erten ta etsayai eraso zion. Su gogor artu bear izan zuten. Amabi mutil erori, bost il ta zazpi zauritu.

Berriz atzera agindu zuenean, lubakira zazpi zauri zutenakin itzuli.

Goiko agintariai gaizki iritzi zitzayen Emparanek egiña. Agintza kendu ta arren ordez Bikuña etorri zitzaigun. Geroztik Bikuña izan zan 8'garrenaren agintari.

Emparan auzitegitan sartu, bañan atzenean barkatu egin ziyoten.

Egun ayetan (25'an) galdu zuten 1' gkoak Cortes'eko lubakia ta ango agintari Itxaso agintzatik kendu egin zuten, ta onen ordez joan zan Emparan. Geroztik 1'koak Emparan izan zuten Teniente koronel. Gizon gogorregia mutillekin; batez ere geyegiko eranak kalte egiten zion.

Somorrostrotik Urnietara.

Irun aurreko guardiak inork bañon obeto egin oi genitun, mutil geyenak inguru ayetakoak ziralako.

Nere aitak sarritan eskribi oi zidan: "Kontu baztar oyekin. Lengo gudatik zekiat nolakoak diran ta."

Mikeleteak itxasoz Ondarrabira joateko ziranean, aguro jakiten genun.

JOSE MARIA OLAIZOLA (I)

Presbítero - Zumaya

Discípulo mío de Valladolid, como sus dos hermanos Carmelo (médico) y Perico (?).

25 Dc. 1922. Pidiendo alguna noticia biográfica del Teniente C. Azpiazu.

31 Dc. Viene a tocar el órgano en la función de hoy y Misa de mañana.

J. Joaquín Azpiazu (a) Karbonero. Su casa la nuestra de veraneo. Etxe ortan jayoi Karboneo'koak esaten diye.

Pleitero patroya zan. Karlotar bera.

Iru erten aldietan erten zan.

Loyolan komunioa izan zanean, kapitán zan.

Egun artan etorri ziran Loyolara Zumayar gazte batzuek eta esan zien: "Be-

(1) Ikusi: Aita Apalategui, C-11-1, 65.

gira: zortzigarren batalloya orain egitekoak gera; or sar zaitezte ta i nere asistente izango aiz.”

Ingalatierran ere izan zan, Lekeitiora ekarritako ixkilluak eroatera.

Somorrostron Radica larri zebilela ta Olló'k gipuzkoar konpañi bi bidali ziozkan. An jun zan Karboneo. Beste bi konpañik txanda egiterakoan an ari zan etorri berriyai deadarka:

“Mutillak, gaur Ama Birjiña Doloreetako en eguna (2); gaur iltzen diranak zerura jungo dituk.”

Andik laister etorri zitzayon zeruan sartzeko giltza. Itxaso-ontzitik botatako granadak jo ta purrukatu zuen. † 27 Marzo, 1873.

Errekondok didanez kapitan besterik etzan.

Bere koñadua Ulzamako notario izan zan, Karboneo'ren seme alabak *kolokatu* (bizibidean jarri) artean. Gero apaiz egin zan.

(2) Zumayako patroya. (A. Apalategui'ren oarra).

LES A K A Z A R R A (1)

Baserritar puska aundi bat. Erreuma aizez joa, bañan gañerantzean gizon gordiña. Ia 80 urte baditu.

—Noiz irten ziñan?

—San Pedroetan (1873). Basterrika ta etorri ziran ta emengo mutil geyenak eraman giñuzten.

Santioetan Ondarrabin, armak ontzitik legorrera ateratzen, oñutsik.

INJENIEROETARA.

Lesakan giñala, esan ziguten ofizio zekitenak injenieroetarako bearko zirala.

(1) Ikusi: Aita Apalategui, C-11-1, 67.

Basterrikak galdetu zidan: "Ofiziorik bai al dek?

Nik ezetz, nekazaritzan besterik ez nekiela.

Orduan Basterrikak: "Esan zak kantero - barrendero (1) aizela."

Au esan nun ta ingenieroetan artu ninduten. Geroztik an beti.

(1874) Urnietakoan gu (ingenieroak) Azkonabitan.

(1) **Barrenero** esan naiko zun, arri zuloz gillea, bañan barrendero esan zun. (A. Apalategui'ren oarra).

D. JOSE IRAZU (I)

Fondista del Hotel Loyola

Julio 28 1922. Entrevista en Loyola.

PARTIDA.

Ni Billafrankatarra, Zelaikoekin (José Antonio Badiola) erten nintzan. Asieran partidán ibilli giñan.

—Jan-gayak nola biltzen zenituzuten?

—Errez oso. Alkateai eskatu.

Alkate batek esan zigun berak ezin eman zeizkigula *erraziyoak*; iñola ere...

(1) Ikusi: Aita Apalategui, C-II-1, 70-71, ta C-II-2, 254-258.

Artu, lotu ta plazara eraman genduen makilkataldi emateko. Aguro asi zan bayetz ta bayetz, ekarriko zizkigula, ta baita ekarri ere.

—Zenbat ziñaten partidari?

—Berrogeiren bat.

—Indarrez eramanak edo zeren nayezt sartuak?

—Gere nayeztakoak.

—¿Nun ibilli ziñaten?

—Zumarragatik Tolosara bitartean. Partida bakoitzak bere toki jakina izaten zun. Noizean bein (amabost egunean edo) Naparroara joaten ginar, Baraibar'era. An alkartzen ziran partida nagusiak eta an izaten zituzten beren esan bearrak.

—Su askotan egin zenuten?

—Ez; bein Billafrankara deskarga bat bota genun.

—Zer egiten zenuten bada?

—Zer egiten genun? Ibilli gabez geyenetan; leku batean gutxi iraun. Gure egiteko izaten zan bakoitzak bere armaz gainera beste batzuk artu ta bear ziran to-

kietara eraman, mutil berriak erten zeintezten. Armak geitxo ziranean, mutillak billatu ta erten erazi. Ortarako jai ta erromeri tokietara jun ta an berotzen genitun.

—Zeun partida askoz geituko zan?

—Ez. Gu beti berrogei. Gañerako berriak Lizarragari bidali.

—Jangai ta bearrik?

—Beñere. Ugari genun. Erriko alkatelai eman erazi ta baita oñetakoak ere.

Dirurik etziguten eman.

INGENIEROS (GUDA-LANGILLEAK).

Lizarragak partida txikiak Lesakara jun erazi zituenean, ara joan giñan bata-lloyak egiteko.

Opiziyo genekigunak (ni arotza nintzan) alde batera artu ta *ingeniero* izango giñala. General Alemani nagusi. Lenbiziko *ingeniero-konpañi* buru Monroy, erdal-duna, Manchararra, tropan sarjento izandua.

Gero bigarrena osatu zan.

Agintari Zumarragako Olanan Victor, kapitana, motz sendo bat, Iturberen ayu-

dante izana, ta Tolosar Izaguirre (etxegillea).

Atzenean irugarrena, Ataungo Zeberio tenientea buru.

Santestebandik Leizara, kañoyak eta eramateko bide berritu egin genduen.

Zortzi illabete Adunan.

—¿Zergatik?

—Andoain ta beste inguru guztiak guda-gizonez bete beteta zeuden ta gu atzerago jarri giñuzten. Adunatik goizero erten ta lanera. Urnietako tunelari aboa itxi. Goiburu ta Urnietako inguruko lubakiak egin ere bai. Bestean Ayan ta abar.

1875' garreneko Otsaillaren lenengo egunetan.

Andoaingo estazio gañean ari giñan lanean; Buruntza gañera iyotzen asi ziran beltzak. Asko ziran. Gañetik oyuka ari ziran. Guk alde egin bear genuen. "Cobardes" deadar egiten ziguten.

Andoaindik ekin zioten gora gureak. Aurretik Joxe Miel (Badiola) *Guias*-ko konpañiakin. Bayonetak pusillen muturretan zituztela. Nik ez dakit zergatik, go-

yen zeuden beltzak jetxi ziran eta etzan besterik izan.

Ernaniko plazan arkitu Loma, Andoain aldera zettorrela, ta Oviedo, bera zetoztenen nagusia. Loma sutu ta makillaz jo omen zun... Olazabalek bere ezpata puskatu... Orduan kendu zuten Loma Gipuzkoatik ta Bizkaira bidali.

—San Markos'en?

—Ez; batalloetako mutillak berak egin zuten. Estalki ta guztiz.

—Ta Txoritokietan?

—Ezta ere. An arkaitz asko da ta.

—Arlaban?

—Bai, bidearen eskui aldera. Irugarren batalloiko konpañi bi an egon ziran. Gazteiz'tik etorri oi ziran zaldi bakoitzean gizon bi, ta noiz edo noiz gure lubakieta-tik su egin genien. Etziran aurreregi etortzen.

—Zer jantzi eman zizuten?

—Urdin illuna, ia beltza. Botoi errenkada bikoia.

—Jan ta diru?

—Lanean giñanean errazio bi; opor egunetan bat. Gañera eguneko erreala.

—Etzan asko.

—¡Asko!; oraingo kontuz ez, bañan erreal batekin arraultza dozena erosten zanean... Ni sarjento egin ninduten ta erreal bi eguneko.

—Eleiz gauzak?

—Zintzo oso. Adunako apaizak igandeko meza artean, gogor egiten zigun. Gudara zertara etorri giñan... guda gizonen galbideak nola ziran ta abar.

—Gazte txorakeriak izango ziran orregatik?

—Bai; jakiña... Nagusitxoak (opizialeak) beren artean zuten *banca* jarria ta soldatak artu orduko jokura. Batzuetan pelotan. Baita gabez ere, mutillak argi zuziak eskuetan zituztela.

Santa Kruz Beran artu zutenean, an giñan. Plaza inguruko etxeetan sartu giñan ta leyoetan koltxoyak jarri ta, ba-ez-pada.

Gero Berrobin azaldu zanean, gu Tolosa gañeko Izaskunen giñan bateria egi-

ten. Gabeko ordu batean *llamada a la carrera* ta Asteasura lenbailen joateko. An zegon Lizarraga ta eleiz inguruko petri-lean jarri gindun. Iturbe mutil pilla batekin etorri zanean, pusillak eliz orma ondoren utzi erazi ta eskola etxean sartu zituzten.

Egun artako zalapartagatik Antxusa gizagajoa il zuten. Goyaz'en. An giñan il toki inguruan formatuta. Lau tiro bota ta oraindik oso ill etzala ta belarri ondoan eman zioten beste tiro bat. Orduan, guk, inguruan giñanak, ildakoaren ondotik ibiltaldia egin bear genula. Ixil ixilik jun giñan, illaren eskui aldetik eta aldamenean giñala, kapitanak esan zun: "Vista a la derecha", alegia guztiok begiratzeko Antxusa izan zanari.

Beste bat ere iltzen ikusi nun. Eibarko errotaria. Apaiz bati dirua zor ziola ta zorrak ez ordaindu ezik, il egin zun apaiza.

Bizkai aldera iru batalloi (2, 5, 6)rekin. Berriz atzera, Arzeluz Zarauz aldera sartu zala ta.

—Ernanikoan?

—Bai; Santa Barbara aurre aurrean
bateria egin genun.

—San Marzial'en?

—Baita ere. Ermita aurreko bateria
geronek egiña.

Konpañiko diru zai ni nintzan ta illero
joaten nintzan Billafrankara diru billa.
Urretan ematen zizkiaten sarigayak.

D.^a DOLORES ITURRIBIDE (1)
E ITURBE

Junio 1922

Nere aitagandik Iturribide jeneralaren illoba. Nere ama Pepe Iturberen arreba.

Gazteak giñala, gerratean, Azpeitiko neskatzak (señoritak) kañoi kargarako saku (saquetes) txikiak josten aritzen giñan. Amaika saku txiki josi genduan.

Maestre jeneralak esaten zigun:

“Cuando vayamos a Madrid, vosotras vais a ser las primeras que entréis.”

Asieran, beltzak errian zirala, karlistak sartu ta alkarri surtan asi ziran.

(1) Ikusi: Aita Apalategui: C-II-I, 78-73.

Nere amak izara zuri bati eunezko gurutze gorri aundi bat josi ta bandera egiñik leyoan kale aldera ipiñi zuen.

Gure etxea zauri etxea zala ikurtzen zuan.

Gure etxera ekarri zuten zaurituta karlista opiziale bat. Velasco zeritzayon. Dea-darka zegon gizagajoa. An il zan.

NERE OSABA PEPE.

Lenengo jaiki aldirako, bazeuzkan izkilluak Eibarren erosita. Lenbailen biltzeko gazteatu zioten. Joan da Eibarrera, pagatu ta zalgurdi batean badakarzki. Nere osaba ta mutilla bakarrik.

Madariyako aldapa gañean zaldia lerturik ezin ibilli, ta mikeleteak esaten zien: "Bañan zer jan ditek zaldi oek gurdi utsa ezin jaso dutela?"

Santa Kruzek Billabonan lotu zue-nean, uste zuen il bear zuela, ta erlejua ta eman ziozkan mutillari; Azpeitira ekartzeko.

Santa Kruz'en aldekoak oso arro zebiltzan.

Oetako batek, Azpeitiarra, (Cándido Arrue, goxogilleak) esan zion:

—“A, Iturbe, mundu ontako gora berak; orain zuek bera' ta gu berriz gora giatzik.”

—Etxekoandre, nik berorren semea atzo ikusi nuen.

—Nun?

—Zestuan.

—Zaude ixilik; ez dira oraindik lau egun Naparroara bidali niozkala arropak ta.

—Atzo Zestuan zan bada. Muturra zeukala bañan ezagutu nuen.



1027886

JB-876

